



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko maiatzaren 8a

66. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzioa egiteko epeaz informatze aldera Euskararen Nafar Institutuak egindako kanpainaren gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Fiteroko kontsultategi medikoaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, LOMCEk Lehen Hezkuntzako seigarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, LOMCEk Batxilergoko 2. mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, LOMCEk Lehen Hezkuntzako hirugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, LOMCEk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko profesionalen ordutegia aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoan legionella neumofiloa egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, dislexia duten ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, untxiek Ebro ibaiaren eskuineko ibaiertzean egindako kalteak nola murriztu aztertzeke lantaldeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programatik irtetea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programa ezartzea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

- Galdera, Nafarroako eremu ez euskaldunean D eredia ezartze aldera erreferentzia-zentroetan deitutako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, ikastetxeetan transexualitateari buruzko protokoloa taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, 2016an egindako maisu-maistren oposizioak direla-eta sortutako egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, 2016an egindako maisu-maistren oposizioetan lanpostua lortu zuten izangaiekin WhatsApp-eko talde bat egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Galdera, familiei eta haurrei laguntzeko plan berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Galdera, familiei eta haurrei laguntzeko plan berrian parte hartzeko bideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Galdera, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Geoalcali enpresari eskatutako Muga Meategia Proiektuaren Testu Bateginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
- Galdera, jakiteko ea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere uste duen Mina Muga proiektuari Ingurumen Baimen Integratua eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa aplikatu behar zaizkiola, eta ez soilik IEA. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).
- Galdera, Espazioko Klimarako Espainiako Babes Zibileko Elkartek eta EMPk (AEPCCCE) egindako proposamena dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (47. or.).
- Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak betetzeari eta Mina Muga proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (49. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplanteei buruzko programaren koordinaziorako eta kalitaterako egiturak erregulatzan dituen irailaren 15eko 69/2016 Foru Aginduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (51. or.).
- Galdera, Nafarroako eremu ez euskaldunean D ereduan matrikulatzeko eskabideak direla-eta Hezkuntza Departamentuan jaso diren ikastetxeen komunikazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (54. or.).
- Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen inolako komunikaziorik jaso duen eremu ez euskalduneko familiek D ereduan matrikulatzeari dagokionez aurkeztutako bi eskabideak direla-eta. Foru Diputazioaren erantzuna (55. or.).
- Galdera, eremu ez euskaldunean aurkeztutako bi eskabideak direla-eta Hezkuntza Departamentuak eginen duen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (55. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzioa egiteko epeaz informatze aldera Euskararen Nafar Institutuak egindako kanpainaren gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzioa egiteko epeaz informatze aldera Euskararen Nafar Institutuak egindako kanpainaren gastuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatzizko galdera egin du aurreinskripzioak direla-eta Euskarabideak egindako kanpainari buruz (9-17/PES-00044). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion erantzuna:

Euskarabideak eskatuta, haren eginkizunen artean baitauka Nafarroako hizkuntza bereki horren sustapena, Komunikazio Zerbitzuak –publizitate-kontratazioaren arloan Foru Administrazio osorako eskuduna– joan den urtarrilean publikitate-iragarkiak kontratatzeko hedabideen plan edo programa bat egin zuen, 47.997,26 euroan zenbatetsia, BEZa barne. Kanpaina urtarrilaren 27an hasi zen eta otsailaren 17ra arte luzatuko da, orduan amaituko baita aurreinskripzio-epea.

Hedabideen plana egiteko –erantsita dator–, planteamenduaren balorazio ekonomikoaz gainera, kontuan hartu da mezu hori helarazi nahi zaion xedeko biztanleriaren profila: familia gazteak, seme-alabak eskolatzeko-adinean dituztenak, euskaraz ez dakitenak eta Nafarroako Foru Komunitate

teko eremu mistoan eta ez-euskaldunean bizi direnak.

Nafarroako Gobernuak hedabideetan urtero kontratatzen dituen iragarki eta espazio kopuruari dagokionez, bilatzen da erlazioa izan dezatela hedabide horiek aurreko ekitaldian izandako ikusentzuleen kopuruarekin, Nafarroako Toki Administrazio kontseilariak, Gobernuko eledun gisa, emandako 1/2003 Foru Aginduak ezarri bezala, bertan arautzen baita erakundeen publikitate-inbertsioa. Horretarako, Komunikazio Zerbitzuak, inbertsioaren banaketarako erreferentzia gisa, erabiltzen du CIES SL enpresak urtero –hedabideek, publikitate agentziek eta erakundeek, horien artean Nafarroako Gobernuak, finantzatuta– Nafarroarako egiten duen Ikus-entzuleen Azterketa. Eta exekutiboaren publikitate-inbertsio osoa urtero Nafarroako Gobernuaren gardentasunaren webgunean kontsulta daiteke.

Hedabideetan jasotako publikitate-euskarrien kontratazioaren izapidetzea 2017rako publikitate-kudeaketaren esparru-akordio indardunean aukeratutako enpresekin egin da, eta hedabide bakoitzerako hedabide horietan publikitate-tarifetan deskonturik onena eskaintzen duen publikitate-agentziaren bitartez.

Honako hauek izan dira kanpaina honetarako aukeratu diren publikitate-euskarriak: Nafarroan argitaratzen diren egunkariak (Diario de Navarra eta Diario de Noticias); “Ze Berri” euskararen udal sustapenerako aldizkaria; gaztelaniaz emititzen duten irrati-emisora orokor guztiak (Ser, Cope eta Onda Cero); TDT lizentzia duten eta gaztelaniaz emititzen duten bi merkataritza-telebistak (Navarra TV y Zona Media TV); Foru Komunitate osoko merkataritza-zinemako aretoak; eta Iruñerriko, Tuterako eta Lizarrako markesinak.

Honako hau izan da publizitate gastuaren euskarri euskarriko banaketa: idatzizko prentsa, % 42,50; irrati orokorrak, % 19,4; markesinak, % 14,9; zinema-aretoak, % 11,7, eta telebistak, % 11,5.

Aipatutako hedabide bakoitzerako gastua honako hau izan da, handitik txikira:

- Diario de Navarra: 12.206,70 euro
- Diario de Noticias: 6.850,02 euro.
- Navarra TV: 4.982,17 euro.
- SER Katea: 4.330,40 euro.
- Onda Cero: 2.528,54 euro.
- Cope: 2.465,13 euro.
- Ze berri aldizkaria: 1.331 euro.
- Zona Media TV: 555,39 euro.

Zenbateko horiei gehitu behar zaie kanpainako kartelak ekoizteko eta markesinak Iruñerrian (30 unitate), Tuteran (6 unitatea) eta Lizarran (4 unitate) alokatzeko kontratuen kostua, 7.121,40 eurokoa; eta iragarkia zinema-aretoetan erakusteko kontratua, beste bi astez, 5.626,50 euroko kostua-rekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Galdera, Fiteroko kontsultategi medikoaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Fiteroko kontsultategi medikoaren egoerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Fiteroko kontsultategiari buruz (9-17/PES-00045). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Gaur egun, Tuterako Osasun Barrutiko Gerentziak ez du inongo kontakturik izan Fiteroko Udalarrekin gai horri ekiteko. Hala eta guztiz ere, berriki, Fiteroko osasun etxeko profesionalak, sendagilea eta erizaina, harremanetan jarri dira udal horretako alkatearekin, osasun etxea margotzeko. Udalak jarrera ona erakutsi du hori aurrera eramateko. Horri dagokionez, gogoratzen da kontsultategiak udalen titulartasunekoak direla.

Osasun Departamentuak, gaur egun, ez du aintzat hartu kontsultategi berri baten proiektua berriz aztertzeak aukera.

Urte hauetan guztietan, Nafarroako Gobernuak 547001-52300-4609-312200 kontu-saila jaso du gastuen aurrekontuetan, hain zuzen ere "Udaletako osasun etxeen funtzionamendurako transferentziak" izenekoak. Horren helburua da Nafarroako toki entitate guztiei beren kontsultategi medikoen funtzionamendu gastuak (garbitasuna, elektrizitatea, gasa, gasolioa, mantentzea, ura eta mankomunitate-kuotak) finantzatzea; izan ere, zenbatekoak kontsultategi motaren eta azaleran dituen metro koadroen arabera banatzen ditu. 2016an, 7.207 eurokoa izan zen Fiteroko kontsultategiari esleitutako zenbatekoa.

Baldin eta beharrezkotzat jotzen bada egokitzeko-obra bat egitea, Udalak aukera dauka dirulaguntza bat eskatzeko "Kontsultategiak erreformatzeko edo handitzeko transferentzia" izeneko 547001-52300-7609-312802 aurrekontu-linearen kargura, hain zuzen horretarako deialdia zabaltzen den unetik.

Linea hori 2017ko aurrekontuetan berreskuratu da, eta 500.000 euro dauzka guztira. Lehia izaera duen deialdi bat da, non eskaerak ikuspuntu tekniko-tik lehenesten baitira. Hemendik gutxira egingen da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, LOMCEk Lehen Hezkuntzako seigarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Esther Korres Bengoetxea andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, LOMCEk Lehen Hezkuntzako seigarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako María Esther Korres Bengoetxea andreak 9-17/PES-00046 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

1.- Zein da ebaluazio horren helburua?

Nafarroan lehen hezkuntzaren amaierako ebaluazioak, 2016/17 ikasturteari begira, lagin izaera dauka eta sistemaren diagnosis egiteko xedea dauka. Horrenbestez, lehen hezkuntzako 6. mailako ikasle guztien banakako ebaluazioa izateari utzi dio.

2.- Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ebaluazio diagnostikoa LOMCEren arabera al da?

LOMCEk ezarritako ebaluazioaren ezaugarri nagusiak 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegia zabaltzeko presako neurriei buruzko abenduaren 9ko 5/2017 Errege Lege Dekretuaren bitartez aldatu dira. Hezkuntzaren aldeko Estatuko Itun Sozial eta Politikoak ateratzen den araudiak indarra hartzen ez duen bitartean, lehen hezkuntzaren amaierako ebaluazioak lagin izaera edukiko du, eta ez zentsu-izaera, LOMCEk 21. artikuluan ezartzen zuen bezala. LOMCEk banakako ebaluazio bat aurreikusten zuen etaparen amaieran, orientatzailea eta ondorio akademikorik gabea; lehen hezkuntzaren amaierako gaur egungo ebaluazioa, berriz, lagin-izaerakoa izanen da, ez ikaslearen, ikastetxearen banakako txostenik gabea. Hau da, lehen hezkuntzako seigarren mailan ikasle guztiei banakako ebaluazioa egin beharrean, ikaslearen lagin bati baizik ez zaizkio egiten ebaluazio pro-

bak. Bai aplikazioa, bai zuzenketa ikastetxetik kanpo eginen dira.

3.- Nork taxutuko du Lehen Hezkuntzako seigarren mailako proba?

Lehen hezkuntzako amaierako ebaluazioa osatzen duten probak Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduetan seigarren mailan irakasten diharduten irakasle-taldeek diseinatu dituzte.

4.- Zer irizpideren arabera taxutuko da Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako proba?

Lehen hezkuntzako 6. mailako probak prestatzeko ezarritako irizpideak normalean irakasleek beren gaiak ebaluatzeko erabiltzen dituzten ebaluazio-irizpideak dira, 60/2014 Foru Dekretuan ezarritako curriculum ofizialean ezarritakoei dagozkienak.

5.- Nola ebaluatuko dira zeharkako gaitasunak?

Proba honen bitartez ebaluatuko diren gaitasunak, hizkuntza gaitasuna, matematika gaitasuna eta gaitasun zientifikoa dira. Gainera, ikasleek tes-tuinguruari buruzko galdetegi bat erantzunen diote.

6. eta 7.- Ikastetxeei nola emanen zaie proba honi buruzko informazioa? Zer informazio emanen zaie ikastetxeei? Eta familiei? Eta irakasleei?

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 6ko 273/2016 Ebazpenak, zeinak onesten baititu Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua 2016-2017 ikasturtean arautzeko jarraibideak, ebaluazio hori lehen hezkuntzako seigarren mailan eginen dela jasotzen du.

Halaber, otsailaren 14an, ikastetxeei aditzera eman zitzaion lehen hezkuntzako amaierako ebaluazioa abenduaren 9ko 5/2016 Errege Lege Dekretuaren bitartez aldatu dela. Alabaina, onesteko dago haren ezaugarriak zehazten dituen ministerio agindua.

Informazio hori osatuko da Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren, Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Zerbitzuak laginerako hautatutako ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin egiten dituen bileretan. Azken horiek informazioa beren

eskola-erkidegoari helaraziko diote ohiko bideak erabiliz.

8.- Interesdun horiek guztiak noiz izanen dira horretaz informatuak?

Martxoan zehar.

9.etik 15.era bitarteko galderak. Noren ardura izanen da ikasleei azterketa egitea? Zer prestakuntza izan beharko dute aztertzaileek? Hizkuntza-eskakizunik eskatuko al zaie aztertzaile horiei? Zein? Zenbat pertsonak egingen dute lan hori? Zer lan-baldintzatan? Nork kontratatuko ditu pertsona horiek? Zer irizpideri jarraikiz? Nork zuzenduko ditu probak?

Hezkuntza Departamentuak kontratatutako langileek aplikatuko dituzte probak ikastetxeetan; langile horiek ziurtatu beharko dute legez gure hezkuntza sisteman irakaskuntza-lanean jarduteko ezarritako betekizunak betetzen dituztela. Ikastetxe bakoitzera bi pertsona joanen dira probak aplikatzera. Euskarazko hizkuntza-profila eskatuko zaie soilik D ereduari dagozkion probak aplikatzen dituzten pertsonari.

Hezkuntza Departamentuak enpresa bat kontratatuko du proben kanpoko aplikazio kontrolatua bermatzeko.

16.- Zein izanen da Ikuskaritzaren zeregina?

Ebaluazio prozesuaren jarraipena Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio eta Kalitate Atalak egingen du.

17.- Non argitaratuko dira proben emaitzak? Emaitzak argitaratu nahi dituzten ikastetxeek, hori egiteko aukerarik izanen al dute?

Ez da ikastetxeari buruzko txostenik egingen, ez eta ikasleen banakako txostenik ere. Emaitzei buruzko txosten orokor bat egingen da, eta Hezkuntza Departamentuaren webguneko Ebaluazio eta Kalitate Atalari dagokion esparruan argitaratuko da. Ikastetxeek, horrenbestez, ezin izanen dituzte haien emaitzak argitaratu.

19.- Proba horrek tokirik izanen al du LOMCE-ren aplikazioaren jarraipena egiteko estatuko webgunean?

Ebaluazio hori 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegia zabalteko presako neurriari buruzko abenduaren 9ko 5/2017 Errege Lege Dekretuak ezarritako lege-esparruari dagokio.

20. eta 21.- Zer data zehatzetan egingen da proba? Noiz arte luzatuko da proba egiteko epea?

Proba maiatzean eta ekainean aplikatuko da ikastetxeetan. Hezkuntza Departamentuko ardura-dunak eta proben aplikatzaileak harremanetan jarriko dira parte hartzen duten ikastetxeekin, ikastetxe bakoitzeko aplikazio-data zehatzak finkatzeko aldera.

22.- Zenbat egun iraunen du probak?

Ikastetxe bakoitzean probak bi egunez aplikatuko dira AG ereduaren kasuan, edo hiru egunez D ereduaren kasuan.

23.- Zer ikasgai ebaluatuko dira?

Ez dira ikasgaiak ebaluatuko, gaitasunak baizik. Honako hauek izanen dira ebaluatuko diren gaitasunak: hizkuntza gaitasuna, matematika gaitasuna eta gaitasun zientifikoa.

24.- Zer hizkuntzatan egin beharko dira probak?

D ereduko ikasleek euskaraz egingen dituzte probak eta AG eredukoek, berriz, gaztelaniaz.

25. eta 26.- Ikasleek euren ikastetxean bertan egingen al dituzte probak? Ikastetxean egiten ez badira, non egingen dituzte?

Probak norberaren ikastetxean egingen dira.

27.- Ikastetxeak proba horiek egitera behartuta al daude?

Laginean parte hartzeko hautatzen diren ikastetxeek laguntza eman beharko dute probak aplikatzeko.

28.- Ikastetxe bakoitzeko zer organok erabaki beharko du proba horiek egingen diren ala ez?

Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei dagokie Hezkuntza Departamentuarekin koordinatzea ebaluazio-probak zuzen garatzeko.

29.- Irakasle batek probak egiteari ezetz esaten badio, zer ondorio jasan ditzake?

Irakasleek ez dute zertan parte hartu inongo proba egiten.

30.- Ikasle bat, arrazoiak arrazoi, proba egiten den egunean ez baldin badago, beste egun batean egin beharko al du?

Ez da beharrezkoa izanen kanpoan dauden ikasleek ebaluazio-probak beste data batzuetan egitea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, LOMCEk Batxilergoko 2. mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Esther Korres Bengoetxea andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, LOMCEk Batxilergoko 2. mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako María Esther Korres Bengoetxea andreak 9-17/PES-00047 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Eskaera horretan, 24 galdera egiten dira, Batxilergoan Unibertsitate sartzeko ahal izateko egin beharreko ebaluazioari buruz. Banan-banan erantzunen ditugu:

1. Zein da ebaluazio horren helburua?

Araudi indardunean xedatuari jarraituz, Batxilergoan Unibertsitate sartzeko ahal izateko egin den ebaluazioaren helburua da ikasleen heldutasun akademikoa eta Gradu unibertsitate-ikasketak arrakastarekin jarraitzeko daukan ahalmena neurtzea, bai eta ikasketak horietara onartzeko eskabideak antolatzea ere, eskaintako postuak esleitzeko.

2. Batxilergoko bigarren mailako ebaluazio diagnostikoa LOMCEren arabera al da?

Ebaluazio hori Hezkuntzaren Kalitatea Hobeitzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegia zabaltzeko presako neurri buruzko abenduaren 9ko 5/2016 Errege Lege Dekretuak ezarritakoari dagokio.

3. Nor izanen da ebaluazioaren arduraduna? Unibertsitatea? Hezkuntza Departamentua? Ikastetxeak?

Hezkuntza Departamentua, NUPekin batera. NUPek Unibertsitatean Sartzeko Probetan zeuzkan eginkizun eta ardura berak izanen ditu.

4. Nor arduratuko da bigarren mailako proba taxutzeaz?

Probak batera prestatuko dituzte arlo bakoitzeko Unibertsitateko aholkulariek eta Hezkuntza Departamentuko koordinatzaileek.

5. Zer irizpideren arabera taxutuko da Batxilergoko bigarren mailako proba?

Unibertsitate sartzeko 2016-2017 ikasturterako Batxilergoko ebaluazioaren ezaugarriak, diseinua eta edukia zehazten dituen abenduaren 22ko ECD/1941/2016 Aginduan xedatutakoa errespetatuz eginen dira, betiere arlo bakoitzari buruzko koordinazio-bileretan hartutako erabakiei errepertuta.

6. Nola ebaluatuko dira zeharkako gaitasunak?

Ebaluazioa bigarren mailako enborreko ikasgaien blokeko gai orokorren arabera eta bloke horretako aukerako gaien arabera.

7. Ministerioak Estatu osorako ezarritako adierazle eta estandarrei egokituko al zaie, Madrilera errege dekretuek xedatzen duten moduan?

ECD/1941/2016 Aginduaren 5. eta 8. artikuluetan xedatuari jarraituz, zehaztapen-matritzetan jasotako eduki-bloketako bakoitzari dagokion pisua edo portzentajea orientagarria izanen da. Proba bakoitzaren kalifikazioaren % 70 lortu behar da gai bakoitzaren zehaztapen-matritzean zehaztutako artean hautatutako ikaskuntza-estandarrek ebaluatuz. Horrenbestez, proben egitura eta edukia Batxilergoko arloko koordinatzailearen eta ikastetxeetako irakasleen artean izandako bileretan zehaztu dira.

8. Unibertsitatean sartzearen ondorioetarako, Estatu osorako unibertsitate-barruti bakarrerako balioko al du?

Bai. Ebaluazioak Estatu osoan balioko du.

9. Batxilergoko zer mailako edukiei buruzkoa izanen da proba?

Ebaluazioa bigarren mailako gai orokorrei eta enborreko ikasgaien blokeko aukerako gai buruzkoa izanen da.

10. Proban sartuko al da batxilergoko lehen mailan bakarrik ematen den ikasgaien bat (Filosofia)?

Ez. Ebaluazioa soilik bigarren mailako gaiei buruzkoa izanen da.

11. Ikastetxeei nola emanen zaie proba honi buruzko informazioa?

Ikastetxeek Hezkuntzako zuzendari nagusiaren irailaren 1eko idazki bat jaso zuten. Abenduaren 9ko 5/2016 Errege Lege Dekretuaren bidez sartutako aldaketen ondoren, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren beste idazki bat jaso zuten. Hemendik gutxira, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren ebazpen bat argitaratuko da, non Nafarroako Foru Komunitatean Unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioa egiteko jarraibideak onetsiko baitira, 2016-2017 ikasturterako.

Gainera, irailaren 2an, bilera bat egin zen gai honen Batxilergoko koordinatzaileekin, eta hartan eskura zegoen informazio guztia eman zitzaion eta premiari egin ziren ikastetxeetako irakasleekin bilerak egiteko irailaren bigarren hamabostaldian, bai eta behar ziren gainerako bilera guztiak ere. Bilera horiek egin dira ebaluazioaren xede diren gai guzti-guztietan.

Azkenik, NUPek, otsailean, bilera bat izan du ikastetxeetako arduradunekin, ikasleak Unibertsitatean onartzearekin zerikusia duen guztia azaltzeko.

12. Zer informazio emanen zaie ikastetxeei? Eta familiei? Eta irakasleei?

Aurreko erantzunean aipatu den bezala, ikastetxeek eta irakasleek behar den informazioa badaukate. Ikastetxeak berak dira familiei informazioa eman dietenak.

13. Interesdun horiek guztiak noiz izanen dira horretaz informatuak?

Aipatu den bezala, interesdunek irailaren 2tik jaso dute informazio zehatza, Estatuko arauetan gertatzen ziren aldaketen arabera.

14. Selektibitateko lehengo probetan bezala, informazio eta koordinazio bilerarik egingen al da ikastetxeetako irakasleekin?

Bai, irakasleek bilerak izan dituzte gai bakoitzeko koordinatzailearekin. Bilera kopurua handitu egin da ikasturte honetan, Estatuko araudian egin dituzten aldaketak direla medio.

15. Noren ardura izanen da ikasleei azterketa egitea?

Batzorde Antolatzaileak izendatutako epaimahaiak izanen dira. Batzorde hori Hezkuntza Departamentuko eta NUPeko kideek osatzen dute.

16. Zer prestakuntza izan beharko dute aztertzaileek?

Epaimahaiak NUPeko irakasleekin eta bigarren hezkuntzako irakasle espezialistekin osatuko dira.

17. Hizkuntza-eskakizunik eskatuko al zaie aztertzaile horiei? Zein?

Euskarazko epaimahaiko kideek hizkuntza horretako C1 mailako titulua izanen dute.

18. Zenbat pertsonak egingen dute lan hori? Zer lan-baldintzatan?

Epaimahaien kopurua eta haien kideen kopurua izena emandako ikasleen kopuruaren arabera erabakiko da.

Prozesuan parte hartzen duten Unibertsitateko eta Bigarren hezkuntzako irakasleek beren lanaren truke dagokien esker-saria jasotzen dute NUPen eskutik, Unibertsitate Sartzeko Probarekin gertatzen zen bezala.

19. Nork kontratatuko ditu pertsona horiek?

Ez da inongo kontratu gehigarriarik egingen, zeren eta NUPeko edo Hezkuntza Departamentuko langileak baitira.

20. Zer irizpideri jarraikiz?

Batzorde Antolatzaileak hautatzen ditu, espezialitate-irizpideari jarraituz, eta bigarren hezkuntzako irakasleen kasuan eskatuko da Batxilergoko 2. mailan kasuko gaia irakasten jardutea. Lehentasuna dute Unibertsitateko gai horren arloko aholkulariek eta Batxilergoko gai horretako koordinatzaileek.

21. Nork zuzenduko du proba?

Aurreko erantzunetan aipatu diren epaimahaietako kideek zuzenduko dute. Batzorde Antolatzaileak izendatuko ditu berrikuspenera eskatu deneko ariketen bigarren edo hirugarren zuzenketan egingen duten irakasleak.

22. Zein izanen da Ikuskaritzaren zeregina?

Hezkuntzako bi inspektore (gizon bat eta emakume bat) Batzorde Antolatzaileko kideak izanen dira; horrenbestez, haien eginkizunak Hezkuntzako kontseilariaren urriaren 9ko 164/2009 Foru Aginduaren 9. eta 11. artikuluetan jasotakoak dira.

23. Zein izanen da NUPen zeregina?

Ikasturte osoan zehar Hezkuntza Departamentuaren eta NUPen arteko lankidetzaren estua izaten ari da. Unibertsitateak jarraituko du bere gain hartzen Unibertsitatean Sartzeko Probetan zeuzkan eginkizun eta ardura berak.

24. Ikasleek berriazko matrikularik egin behar dute proba hori egiteko? Noiz? Non? Tasarik ordaindu beharko dute? Zenbatekoa?

Bai. Ikasleek Batxilergoko ebaluazio-proba batean emanen dute izena Unibertsitatera sartzeko, ebaluaziora aurkezteko bidea ematen dioten ikasketak amaitu dituen ikastetxearen bitartez. Inskripzioa eginen da Nafarroako Unibertsitate Publikoak adierazitako bitarteko elektronikoak erabiliz.

Ebaluazioa eginen zaie soilik unibertsitate-ikasketak egin nahi dituzten ikasleei, baina ez da beharrezkoa izanen Batxilergoko titulua eskura-

tzeko. Horrenbestez, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren 381/2016 Ebazpenean ezarritakoak ordainduko dute. Ebazpen horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, titulu ofizialak eskuratzeko zerbitzu akademikoengatik eta gainerako eskubideengatik 2016/2017 ikasturtean ordaindu beharreko prezio publikoak finkatzen dira. Tasa arrunta 91,13 eurokoa izanen da, ebazpen horretan jasotako salbuespenekin.

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, LOMCEk Lehen Hezkuntzako hirugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Esther Korres Bengoetxea andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, LOMCEk Lehen Hezkuntzako hirugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako María Esther Korres Bengoetxea andreak 9-17/PES-00048 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

1.- Zein da ebaluazio horren helburua?

60/2014 Foru Dekretuak ezartzen duen bezala, ikastetxeek, lehen hezkuntzako hirugarren maila amaitzerakoan, ikasle guztien banakako ebaluazioa egin beharko dute.

2.- Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazio diagnostikoa LOMCEren arabera da?

Hezkuntza Departamentuak, araudi indardunari jarraituz, kanpo ebaluazioko proba batzuk jartzen ditu ikastetxeen eskura web orrian, eta ikastetxeek autonomia dute haien aplikatzeko, egokitzeko, haien egutegia hautatzeko, zuzentzeko eta abarretarako.

3.- Nork taxutuko du Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako proba?

Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen eskura jartzen dituen probak Nafarroako ikastetxe publiko eta itunduetan lehen hezkuntzan eskolak ematen dituzten irakasle-taldeek diseinatu dituzte.

4.- Zer irizpideren arabera taxutuko da Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako proba?

Probak prestatzeko ezarritako irizpideak normalean irakasleek beren gaiak ebaluatzeko erabiltzen dituzten ebaluazio-irizpideak dira, 60/2014

Foru Dekretuan ezarritako curriculum ofizialean ezarritakoei dagozkienak.

Ikastetxeek autonomia dute proba horiek erabiltzeko nahiz ez erabiltzeko.

5.- Nola ebaluatuko dira zeharkako gaitasunak?

Diseinatutako probak hizkuntza gaitasuna eta matematika gaitasuna ebaluatzekoak dira.

6. 7. eta 8. galderak. Ikastetxeei nola emanen zaie proba honi buruzko informazioa? Zer informazio emanen zaie ikastetxeei? Eta familiei? Eta irakasleei? Interesdun horiek guztiak noiz izanen dira horretaz informatuak?

Ebaluazio eta Kalitate Atalak ikastetxeei kasuko jarduketa-protokoloa bidali die. Zuzendaritza-taldeak informazio hori bere eskola-erkidegoari helaraziko dio ohiko bideak erabiliz.

9.etik 15.era bitarteko galderak. Noren ardura izanen da ikasleei azterketa egitea? Zer prestakuntza izan beharko dute aztertzaileek? Hizkuntza-eskakizunik eskatuko al zaie aztertzaile horiei? Zein? Zenbat pertsonak eginen dute lan hori? Zer lan-baldintzatan? Nork kontratatuko ditu pertsona horiek? Zer irizpideri jarraikiz? Nork zuzenduko ditu probak?

Ikastetxeak dira erabakitzen dutenak eta probak aplikatzeko nahiz ez aplikatzeko autonomia dutenak.

16.- Zein izanen da Ikuskaritzaren zeregina?

Proba horien kudeaketan, ikuskaritzak bere ohiko eginkizunak betetzen ditu.

17.- Non argitaratuko dira proben emaitzak? Emaitzak argitaratu nahi dituzten ikastetxeek, hori egiteko aukerarik izanen al dute?

Ikastetxeek ebaluazio hori beren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan integratuko dute, eta beren barneko hobekuntza planaren esparruan, hobekuntza-ildoak planteatuko dituzte, emaitzen arabera.

19.- Proba horrek tokirik izanen al du LOMCEren aplikazioaren jarraipena egiteko estatuko webgunean?

Ebaluazio hori Nafarroako Foru Komunitateko lehen hezkuntzako irakaskuntzarako curriculum

ezartzen duen martxoaren 19ko 60/2014 Foru Dekretuak xedatutako lege-esparruari dagokio.

20., 21. eta 22.- Zer data zehaztuz egingen da proba? Noiz arte luzatuko da proba egiteko epea? Zenbat egun iraunen du probak?

Ikastetxeek autonomia dute bai aplikazioari, bai egutegiari dagokienez.

23.- Zer ikasgai ebaluatuko dira?

Ez dira ikasgaiak ebaluatuko, gaitasunak baizik. Honako hauek izanen dira ebaluatuko diren gaitasunak: hizkuntza gaitasuna eta matematika gaitasuna.

24.- Zer hizkuntzatan egin beharko dira probak?

D ereduko ikasleek euskaraz egingen dituzte probak eta AG eredukoek, berriz, gaztelaniaz.

25. eta 26.- Ikasleek euren ikastetxean bertan egingen al dituzte probak? Ikastetxean egiten ez badira, non egingen dituzte?

Probak norberaren ikastetxean egingen dira.

27.- Ikastetxeak proba horiek egitera behartuta al daude?

60/2014 Foru Dekretuak ezartzen du ikastetxeek, lehen hezkuntzako hirugarren maila amaitzerakoan, ikasle guztien banakako ebaluazioa egin beharko dutela.

28. eta 29.- Ikastetxe bakoitzeko zer organok erabaki beharko du proba horiek egingen diren ala ez? Irakasle batek probak egiteari ezetz esaten badio, zer ondorio jasan ditzake?

Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei dagokie ebaluazio-proba horien garapena kudeatzea.

30.- Ikasle bat, arrazoiak arrazoi, proba egiten den egunean ez baldin badago, beste egun batean egin beharko al du?

Ikastetxeek autonomia dute proba aplikatzeko, egokitzeko, haren egutegia ezartzeko, zuzentzeko eta abarretarako. Ikastetxeak dira erabakitzen dutenak eta aplikatzeko autonomia dutenak.

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, LOMCEk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Esther Korres Bengoetxea andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, LOMCEk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailaren amaierarako ezartzen duen kanpo-ebaluazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako María Esther Korres Bengoetxea andreak 9-17/PES-00049 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

1.- Zein da ebaluazio horren helburua?

Nafarroan derrigorrezko bigarren hezkuntzaren amaierako ebaluazioak, 2016/17 ikasturteari begira, lagin izaera dauka eta diagnosia egiteko xedea dauka.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ebaluazio diagnostikoa LOMCEren arabera al da?

LOMCEk ezarritako ebaluazioaren ezaugarri nagusiak 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegia zabaltzeko presako neurriari buruzko abenduaren 9ko 5/2017 Errege Lege Dekretuaren bitartez aldatu dira. Hezkuntzaren aldeko Estatuko Itun Sozial eta Politikotik ateratzen den araudiak indarra hartzen ez duen bitartean, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren amaierako ebaluazioak lagin izaera izanen du eta ez du ondorio akademikorik izanen, halako moduz non hura gainditzeko ez den titulaziorik beharko.

3.- Nork taxutuko du DBHko laugarren mailako proba?

Bigarren hezkuntzako amaierako ebaluazioa osatzen duten probak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak diseinatu ditu, Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalaren bitartez.

4.- Zer irizpideren arabera taxutuko da DBHko laugarren mailako proba?

Proben diseinuan erabilitako ebaluazio irizpideak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Baxilergoko oinarrizko curriculumak ezartzen dituen abenduaren 26ko 1105/2014 Errege Dekretuak xedatutakoak izanen dira.

5.- Nola ebaluatuko dira zeharkako gaitasunak?

Proba honen bitartez ebaluatuko diren gaitasunak, hizkuntza gaitasuna, matematika gaitasuna eta gaitasun sozial eta zibikoa dira. Gainera, ikasleek testuinguruari buruzko galdetegi bat erantzunen diote.

6.- Ikastetxeei nola emanen zaie proba honi buruzko informazioa?

Ikastetxeei informazioa eman zaie Hezkuntza Departamentuak derrigorrezko bigarren hezkuntza irakasten duten ikastetxeetako zuzendariekin izandako bileren bitartez.

7.- Zer informazio emanen zaie ikastetxeei? Eta familiei? Eta irakasleei?

Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin egindako bileretan ikastetxeei emandako informazio orokorra beren eskola-komunitateari helaraziko diote zuzendaritza-talde horiek, ohiko bideak erabiliz.

8.- Interesdun horiek guztiak noiz izanen dira horretaz informatuak?

Martxoan, hautatutako ikastetxeei emanen zaie informazioa.

9.etik 15.era bitarteko galderak. Noren ardura izanen da ikasleei azterketa egitea? Zer prestakuntza izan beharko dute aztertzaileek? Hizkuntza-eskakizunik eskatuko al zaie aztertzaile horiei? Zein? Zenbat pertsonak eginen dute lan hori? Zer lan-baldintzatan? Nork kontratatuko ditu pertsona horiek? Zer irizpideri jarraikiz? Nork zuzenduko ditu probak?

Hezkuntza Departamentuak kontratatutako langileek aplikatuko dituzte probak ikastetxeetan; langile horiek ziurtatu beharko dute legez gure hezkuntza sisteman irakaskuntza-lanean jarduteko ezarritako betekizunak betetzen dituztela. Ikastetxe bakoitzera bi pertsona joanen dira probak

aplikatzera (edo pertsona bat, ikastetxe txikien kasuan). Euskarazko hizkuntza-profila eskatuko zaie soilik D ereduari dagozkion probak aplikatzen dituzten pertsonari.

Hezkuntza Departamentuak enpresa bat kontratatuko du proben kanpoko aplikazio kontrolatua bermatzeko.

16.- Zein izanen da Ikuskaritzaren zeregina?

Ebaluazio prozesuaren jarraipena Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio eta Kalitate Atalak eginen du.

17. eta 18.- Non argitaratuko dira proben emaitzak? Emaitzak argitaratu nahi dituzten ikastetxeek, hori egiteko aukerarik izanen al dute?

Ez da ikastetxeari buruzko txostenik eginen, ez eta ikaslearen banakako txostenik ere. Emaitzei buruzko txosten orokor bat eginen da, eta Hezkuntza Departamentuaren webguneko Ebaluazio eta Kalitate Atalari dagokion esparruan argitaratuko da. Ikastetxeek, horrenbestez, ezin izanen dituzte haien emaitzak argitaratu.

19.- Proba horrek tokirik izanen al du LOMCE-ren aplikazioaren jarraipena egiteko estatuko webgunean?

Ebaluazio hori 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegia zabaltzeko presako neurriari buruzko abenduaren 9ko 5/2017 Errege Lege Dekretuak ezarritako lege-esparruari dagokio.

20. eta 21.- Zer data zehatzetan eginen da proba? Noiz arte luzatuko da proba egiteko epea?

Proba maiatzaren bigarren astean aplikatuko da ikastetxeetan. Hezkuntza Departamentuko arduradunak eta proben aplikatzaileak harremantant jarriko dira hautatutako ikastetxeekin, ikastetxe bakoitzeko aplikazio-datak zehazte aldera.

22.- Zenbat egun iraunen du probak?

Ikastetxe bakoitzean probak egun bakarrean aplikatuko dira AG ereduaren kasuan, edo bi egunez D ereduaren kasuan.

23.- Zer ikasgai ebaluatuko dira?

Honako hauek izanen dira ebaluatuko diren gaitasunak: hizkuntza gaitasuna, matematika gaitasuna eta gaitasun sozial eta zibikoa.

24.- Zer hizkuntzatan egin beharko dira probak?

D ereduko ikasleek euskaraz eginen dituzte probak eta AG eredukoek, berriz, gaztelaniaz.

25. eta 26.- Ikasleek euren ikastetxean bertan eginen al dituzte probak? Ikastetxean egiten ez badira, non eginen dituzte?

Probak norberaren ikastetxean eginen dira.

27.- Ikastetxeak proba horiek egitera behartuta al daude?

Laginean parte hartzeko hautatzen diren ikastetxeek laguntza eman beharko dute probak aplikatzeko.

28.- Ikastetxe bakoitzeko zer organok erabaki beharko du proba horiek egiten diren ala ez?

Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei dagokie Hezkuntza Departamentuarekin koordinatzea ebaluazio-probak zuzen garatzeko.

29.- Irakasle batek probak egiteari ezetz esaten badio, zer ondorio jasan ditzake?

Irakasleek ez dute zertan parte hartu inongo proba egiten.

30.- Ikasle bat, arrazoiak arrazoi, proba egiten den egunean ez baldin badago, beste egun batean egin beharko al du?

Ez da beharrezkoa izanen kanpoan dauden ikasleek ebaluazio-probak beste data batzuetan egitea.

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 17ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programari buruz (9-17-PES-00050). Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Galdera: Koloneko minbiziaren baheketa-programaren barruan, zein da lehen eta bigarren faseen kronograma?

Kronogramako 1. Itzulia

PAMPLONA		
ZBS	Primera invitación	Última Invitación
San Juan	Nov 2013	Feb 2014
Milagrosa	Ene 2014	Abr 2014
Ermitagaña	Maz 2014	Jun 2014
Huarte	Abr 2014	Jun 2014
Buztintxuri	Jun 2014	Jun 2014
Mendillorri	Sept 2014	Nov 2014
Iturrama	Sept 2014	Dic 2014
Isaba	Nov 2014	Nov 2014
Echavacoiz	Nov 2014	Nov 2014
Villava	Nov 2014	Ene 2015
Auritz/Burguete	Dic 2014	Dic 2014
Azpilagaña	Ene 2015	Maz 2015
Chantrea	Feb 2015	May 2015
C. Viejo-I Ensanche	Maz 2015	May 2015
II Ensanche	May 2015	Sept 2015
Rochapea	Jun 2015	Oct 2015
San Jorge	Sept 2015	Oct 2015
Sarriguren	Oct 2015	Oct 2015

ESTELLA		
ZBS	1ª invitación	Última Invitación
Estella	Dic 2013	Nov 2014
San Adrián	Nov 2014	Oct 2015

TUDELA		
ZBS	1ª invitación	Última Invitación
Tudela Oeste	Nov 2013	May 2014
Tudela Este	May 2014	Maz 2015
Corella	Maz 2015	Octubre 2015

Kronogramako 2. Itzulia

PAMPLONA		
ZBS	Primera invitación	Última Invitación
San Juan	enero-16	marzo-16
Tafalla	enero-16	febrero-16
Milagrosa	enero-16	febrero-16
Ermitagaña	febrero-16	abril-16
Barañain	marzo-16	mayo-16
Buztintxuri	abril-16	abril-16
Artajona	abril-16	abril-16
Huarte	abril-16	mayo-16
Berriozar	mayo-16	junio-16
Iturrama	mayo-16	septiembre-16
Puente la Reina	mayo-16	junio-16
Noain	junio-16	septiembre-16
Mendillorri	septiembre-16	noviembre-16
Burlada	septiembre-16	noviembre-16
Cizur	octubre-16	noviembre-16
Villava	noviembre-16	diciembre-16
Echavacoiz	noviembre-16	noviembre-16
Isaba	noviembre-16	noviembre-16
Auritz-Burguete	noviembre-16	noviembre-16
Carcastillo	diciembre-16	diciembre-16
Ansoain	diciembre-16	enero-17
Olite	enero-17	enero-17
Azpilagaña	enero-17	marzo-17
Peralta	enero-17	febrero-17
Chantrea	febrero-17	abril-17
Ultzama	marzo-17	marzo-17
Casco Viejo -I Ensanche	marzo-17	abril-17
Elizondo	marzo-17	abril-17
Lesaka	abril-17	mayo-17
Orcoyen	abril-17	mayo-17
Doneztebe-Santesteban	mayo-17	mayo-17
Sangüesa	mayo-17	mayo-17
Aoiz	mayo-17	mayo-17
II Ensanche	mayo-17	septiembre-17
Rochapea	mayo-17	octubre-17
Valle de Salazar	junio-17	junio-17
San Jorge	septiembre-17	octubre-17
Leitza	octubre-17	octubre-17
Sarriguren	octubre-17	octubre-17
Irutzun	octubre-17	noviembre-17
Altsasu-Alsasua	octubre-17	noviembre-17
Etxarri-Aranatz	noviembre-17	noviembre-17

TUTERA		
ZBS	Lehen gonbidapena	Azken gonbidapena
Tutera mendebaldea	2016ko urtarrila	2016ko martxo
Cintruénigo	2016ko martxo	2016ko apirila
Tutera ekialdea	2016ko maiatza	azaroa-16
Buñuel	2017ko urtarrila	2017ko otsaila
Corella	2017ko martxo	2017ko maiatza
Valtierra-Cadreita	2017ko ekaina	2017ko iraila
Cascante	2017ko urria	azaroa-17

LIZARRA		
ZBS	Lehen gonbidapena	Azken gonbidapena
Lizarra	2016ko otsaila	2016ko iraila
Antzin-Ameskoa	2016ko maiatza	2016ko ekaina
Los Arcos	2016ko urria	2016ko urria
Allo	2016ko azaroa	2016ko azaroa
Villatuerta	2016ko abendua	2017ko urtarrila
San Adrián	2017ko urtarrila	2017ko ekaina
Lodosa	2017ko maiatza	2017ko urria
Viana	2017ko urria	2017ko azaroa

Galdera: Zein da lehen eta bigarren faseen betetze-maila Nafarroako eskualde guztietan eta herriz herri?

1. itzulua (2013ko azarotik 2015eko abendura):

Ezarritako kronogramaren arabera, xedeko biztanleriako lehen itzulian sartutako oinarrizko osasun eskualdeetako pertsona guztiei egin zitzairen gonbita.

2. itzulua (2015eko urtarriletik 2017ko azarora):

Bigarren itzuliko xedeko biztanlerian sartutako pertsona guztiei bidaltzen ari zaizkie gonbidapenak, oinarrizko osasun eskualdeen arabera, ezarritako kronogramari jarraituz. Une honetan (2017ko otsaila) honako oinarrizko osasun eskualde hauetara bidaltzen ari dira gonbidapenak: Azpilagaña, Azkoién, Txantrea, Buñuel eta San Adrián. Honako hauek gonbidapenak bidaltzen hasteko zain daude, martxotik bigarren itzulua amaitzen den arte: Ultzama, Alde Zaharra, Elizondo, Lesa-

ka, Orkoién, Doneztebe, Zangoza, Agoitz, II. Zabalgunea, Arrotxapea, Zaraitzu, Sanduzelai, Leitza, Sarriguren, Irurtzun, Altsasu, Etxarri-Aranatz, Corella, Valtierra-Cadreita, Cascante, Lodosa eta Viana.

Herriei dagokienez, berriz, I. eranskina igorri dugu, non Nafarroako oinarrizko osasun eskualde guztiak zehaztuta baitatoz, haiei atxikitako herriak barne.

I. eranskina Nafarroako zonifikazioa, oinarrizko osasun eskualdeen arabera, 2016ko urtarrilaren 1ean

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Anexo I. Zonificación de Navarra por Zonas Básicas de Salud a 1 de enero de 2016

ZONA BÁSICA SALUD	MUNICIPIO	DISTRITO/SECCIÓN O CONCEJO incluido
Denominacion	Denominacion	
Altsasu/Alsasua	Altsasu/Alsasua Ziordia Olazti/Olazagutía	
Etxarri Aranatz	Arbizu Bakaiku Etxarri-Aranatz Ergoiena Iturmendi Lakuntza Urdiain	
Irurtzun	Araitz Arakil Arruazu Betelu Uhartte-Arakil Irurtzun Imotz Irañeta Iza Larraun Lekunberri	Aguinaga Atondo Cia Gulina
Leitza	Arano Areso Goizueta Leitza	
Lesaka	Arantza Etxalar Igantzi Lesaka Bera/ Vera de Bidasoa	
Elizondo	Baztan Urdazubi/Urdax Zugarramurdi	
Doneztebe/Santesteban	Bertizarana Donamaria Elgorriaga Eratsun Ezkurra Ituren Labaien Oitz Saldias Doneztebe/Santesteban Sunbilla Urrotz Zubieta	

ZONA BÁSICA SALUD	MUNICIPIO	DISTRITO/SECCIÓN O CONCEJO incluido
Denominacion	Denominacion	
Ultzama	Anue Basaburua Ezcabarte Lantz Odieta Ultzama	Anoz Excepto: Gascue Guelbenzu
Auritz/Burguete	Abaurreagaina/Abaurrea Alta Abaurrepea/Abaurrea Baja Aria Aribe Auritz/Burguete Erro Garaioa Garralda Orbaitzeta Orbara Orreaga/Roncesvalles Luzaide/Valcarlos Hiriberri/Villanueva de Aezkoa	
Aoiz	Aoiz<>Agoitz Arce Izagaondoa Lizoáin Lónguida Oroz-Betelu Unciti Urroz	Excepto: Induráin
Huarte	Egüés Esteribar Huarte<>Uharte	Excepto: Ardanaz Badostáin Sarriguren
Villava	Ezcabarte Olaibar Villava<>Atarrabia	Excepto: Anoz Cildoz
Burlada	Burlada	

ZONA BASICA SALUD	MUNICIPIO	DISTRITO/SECCION O
Denominacion	Denominacion	CONCEJO incluido
Berriozar	Atez Ezcabarte Iza Juslapeña Odieta Berrioplano Berriozar	Cildoz Excepto: Aguinaga Atondo Cia Gulina Iza Lete Gascue Guelbenzu Excepto: Artica
Orcoyen	Belascoáin Ciriza Echarri Etxauri Goñi Iza Olo Olza Vidaurreta Zabalza Orcoyen	Iza Lete
San Jorge	Pamplona<>Iruña	
Rochapea	Pamplona<>Iruña	
Ansoain	Ansoáin	
Buztintxuri	Pamplona<>Iruña Berrioplano	Artica
Chantrea	Pamplona<>Iruña	
Casco Viejo-I Ensanche	Pamplona<>Iruña	
II Ensanche	Pamplona<>Iruña	
Milagrosa	Pamplona<>Iruña	

ZONA BÁSICA SALUD	MUNICIPIO	DISTRITO/SECCIÓN O CONCEJO incluido
Denominacion	Denominacion	
Azpilagaña	Pamplona<>Iruña	
Iturrama	Pamplona<>Iruña	
San Juan	Pamplona<>Iruña	
Ermitagaña	Pamplona<>Iruña	
Mendillorri	Aranguren Pamplona	
Sarriguren	Egües Ripagaina	Ardanaz Badostáin Sarriguren
Cizur	Cizur Zizur Mayor<>Zizur Nagusia	
Echavacoiz	Pamplona<>Iruña	
Barañáin	Barañáin	
Puente la Reina	Adiós Añorbe Artazu Biurrun-Olcoz Cirauqui Enériz Guirguillano Legarda Mañeru Mendigorría Muruzabal Obanos Puente la Reina<>Gares Tirapu Ucar Uterga	Olcoz

ZONA BÁSICA SALUD	MUNICIPIO	DISTRITO/SECCION O
Denominacion	Denominacion	CONCEJO incluido
Noáin	Beriáin Biurrun-Olcoz Noáin (Valle de Elorz) Galar Ibargoiti Monreal Olóriz Tiebas-Muruarte de Reta Unzué	Biurrun Excepto: Mendivil Solchaga
Sangüesa	Aibar Cáseda Eslava Ezprogui Gallipienzo Izagaondoa Javier Leache Lerga Liédena Lumbier Petilla de Aragón Romanzado Sada Sangüesa Urraúl Alto Urraúl Bajo Yesa	Induráin
Valle de Salazar	Esparza Ezcároz Gallues Güesa Izalzu Jaurrieta Navascués Ochagavía Oronz Sarriés	
Isaba	Burgui Castillo-Nuevo Garde Isaba Roncal Urzainqui Uztarroz Vidangoz	

ZONA BASICA SALUD	MUNICIPIO	DISTRITO/SECCION O
Denominacion	Denominacion	CONCEJO incluido
Tafalla	Barásoain Garinoain Leoz Olóriz Orísoain Pueyo Tafalla	Mendivil Solchaga
Artajona	Artajona Berbinzana Larraga Miranda de Arga	
Carcastillo	Carcastillo Mélida Murillo el Fruto Santacara	
Olite	Beire Caparroso Murillo el Cuende Olite Pitillas San Martín de Unx Ujué	
Peralta	Falces Funes Marcilla Peralta	
Estella	Aberin Ayegui Estella<>Lizarra Iguzquiza Morentin Villamayor de Monjardín Yerri	Excepto: Urbiola Bearin
Villatuerta	Abárzuza Guesálaz Lezáun Oteiza Salinas de Oro Villatuerta Yerri	Excepto: Bearin
Allo	Allo Arellano Arróniz Barbarin Dicastillo Iguzquiza Lerín Luquin	Urbiola

ZONA BASICA SALUD	MUNICIPIO	DISTRITO/SECCIÓN O CONCEJO incluido
Denominacion	Denominacion	
Ancín-Améscoa	Abaigar Allín Améscoa Baja Ancín Aranarache Etayo Eulate Lana Larraona Legaria Mendaza Metauten Mirafuentes Murieta Nazar Oco Olejua Piedramillera Sorlada Zúñiga	
Los Arcos	Aguilar de Codés Armañanzas Azuelo Bargota El Busto Desojo Espronceda Los Arcos Mués Sansol Torralba del Rio Torres del Rio	
Viana	Aras Cabredo Genevilla Lapoblación Marañon Viana	
Lodosa	Lazagurría Lodosa Mendavia Sartaguda Sesma	
San Adrián	Andosilla Azagra Carcar San Adrián	
Tudela Oeste	Tudela	
Tudela Este	Fontellas Tudela	

ZONA BÁSICA SALUD	MUNICIPIO	DISTRITO/SECCIÓN O CONCEJO incluido
Denominacion	Denominacion	
Valtierra-Cadreita	Arguedas Cadreita Milagro Valtierra Villafranca	
Corella	Castejón Corella	
Cintruénigo	Cintruénigo Fitero	
Cascante	Ablitas Barillas Cascante Monteagudo Murchante Tulebras	
Buñuel	Buñuel Cabanillas Cortes Fustiñana Ribaforada	

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko profesionalen ordutegia aldatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko profesionalen ordutegia aldatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 17ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-17-PES-00051). Haren bidez, informazioa eskatzen du Tuterako Reina Sofía Ospita-

leko profesionalen ordutegia aldatzeari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren 2016ko abenduaren 30eko 207/2016 Foru Aginduak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen 2017rako lan-egutegia arautzen du. Horrenbestez, Foru Administrazio osoa hartzen duen ordutegi-aldaketa bat da.

Foru agindu horretan honako hau ezartzen da: "Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, orokorrean, 7 ordu eta 30 minutukoa izanen da. Nahitaez aritu beharko da 8:00etatik 15:00ak arte; gainerako 30 minutuak egiteko langileek malgutasuna izanen dute, 7:30etik 8:00ak arte eta 15:00etatik 15:30 arte." Hau da, lanaldiaren banaketa hori da "txanda zentrala" deitutakoari aplikatu beharrekoa.

Foru aginduak zehazten duenez, “Aurreko idatz-zatietan ezarritako lanaldi banaketa ez zaie aplikatuko, zerbitzuko beharrak direla-eta, lanaldi berezia edo ordu konpentsazioren bat (lana txandaka, gauez, etab.) dutenei, ez eta ikastetxeei eta osasun zentzoei atxikita daudenei ere, horiek lan egutegi berezia izanen baitute.”

Tuterako Osasun Barrutian, lan-ordutegiaren aldaketa horrek 28 orduko poltsa bat sortzen dio profesional bakoitzari, urtean zehar hartu beharrekoak, zerbitzuaren beharren arabera. Ordezkapenen tratamendua bestelako absentsietan erabiltzen dena izanen da.

Langileen lan-baldintzen aldaketak gaixoei ematen zaien arretan izan dezakeen eragina ahal den guztian gutxitzeko, espezialitateen araberrako azterlan bat egin da, ordu-poltsa horretaz goza-

tzeak gaixoentzako laguntzan izan dezakeen eragina balioesteko.

Ildo horretatik, eta O-NOZen esparruko estrategia komunari jarraituz, zenbait neurri eraman dira aurrera, zeinek, orokorrean, berekin baitakarte profesionalen agendak ordutegi berriari egokitzea. Espezialitate gehienetan, kontsulta bakoitzean gaixo bat gehiago jarri da; beste espezialitate batzuetan, berriz, kasuan kasuko berezitasunei egokitutako aldaketak egin dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoan legionella neumofiloa egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoan legionella neumofiloa egoteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 17ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak informazio-eskaera bat egin du (9-17/PEI-00052). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

“Veolia Servicios Norte SAU” enpresa, azaroaren 27ko 552/2016 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren ikastetxe publikoetako instalazioak garbitu eta desinfektatzeko eta gero legionellosia kontrolatzeko eta hari aurrea hartzeko laginak hartzeko

urteko zerbitzuaren kontratazioaren adjudikazio-hartzailea izan zen 2016-2017 ikasturterako.

Enpresa horrek, bere kontratuan oinarrituta, Tuterako Torre Monreal HBIan 2017ko urtarrilaren 2rako eta 3rako programatutako garbiketa eta desinfekzioa egin zituen, eta gutxienez ere 15 egun igarota laginak hartu zituen gero analisiak egiteko, protokoloak ezartzen duen moduan. Zehazki, urtarrilaren 20an hartu ziren laginak. Egun horretan bertan jakinarazi zitzaion ikastetxeari.

Gainera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari jakinarazi zitzaion, eta horrek erabaki zuen ikastetxe horren jarraipen bat egitea, zeuzkan ezaugarriengatik. Otsailaren 1ean berriz ere laginak hartu ziren, analisi osagarri berekiak egiteko.

Paraleloki, instalazioaren balizko gabeziak egiaztatzeko, otsailaren 2an, Hezkuntza Departamentuko Azpiegituren Zerbitzuak bisita bat egin zuen Torre Monreal HBIn, bertako egoera ezagutzeko eta aldaketaren bat egitea komeni zen balioesteko. Bisita horretan, ikastetxeko zuzendaria ere egon zen, bai eta LINACALeko teknikari bat ere. Enpresa hori berokuntzako eta ur bero sanitarioko instalazioen mantentzeaz arduratzen da. Bisitan ondorioztatu zen egun dagon bero-sorgailua eskasa izan zitekeela une oro ikastetxearen

bero-beharrak betetzeko: berokuntza, igerileku klimatizatu eta ur bero sanitarioa. Horren ondorioz, ACS akumulagailuak ez du beti lortzen funtzionamendurako egokia den temperatura, eta horrekin legionellaren garapena errazten da.

Antzemandako arazoari konponbidea emateko, erabaki zen galdara berri bat jartzea, soilik ur bero sanitarioa ekoizteko erabiliko dena.

Otsailaren 3an, VEOLIA enpresak Hezkuntza Departamentuari jakinarazi zion beste bi positibo aurkituak zituztela laginetan, kontzentrazio minioekin:

Mutilen aldagelako eskuineko 2. dutxa: 250 ufc/l

Nesken aldagelako eskuineko 2. dutxa: 580 ufc/l

Jarraitu beharreko protokoloaren arabera, ikastetxeetako instalazioetan legionellosia kontrolatzeko eta hari aurrea hartzeko kontratazioa arautzen duen baldintza teknikoaren orrietan adierazita dagoena, ez da beharrezkotzat jotzen inongo jarduketa osagarriak egitea, analisi horietan lortutako emaitzak direla eta.

Ikastetxearen ahuldade berezia dela eta, beste garbiketa eta desinfekzio bat egitea behar ez zen arren, baldintza-orrien arabera, erabaki zen otsailaren 7an eta 8an haiek egitea, baita otsailaren 8an ikastetxeko jarduera etenez ere, hartara uraren hiperkloratzeko tratamenduak ur bero sanitarioko erabiltzaileengan, ur hori tratatzen den bitartean, izan lezakeen eragozpenak saihesteko.

Bere aldetik, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, otsailaren 6an, posta elektronikoko mezu bat igorri zion Hezkuntza Departamentuari eta Torre Monreal HBIko zuzendaritzari, analisisen behin-behineko emaitza positiboari buruz informatzeko eta gomendio batzuk emateko; gomendio horien artean zegoen egiten ari zen desinfekzioa, ur bero sanitarioko sarearen kloratze jarraituko sistema funtzionamenduan jartzea eta legionellaren aurkako iragazkiak jartzea dutxetan, aerosolak jaulkitzeko arrisku handieneko tokiak baitira.

Sareko kloratze jarraituko sistema eta dutxetako legionellaren aurkako iragazkiak berehala instalatu eta martxan jarri ziren. Horrekin, ikastetxeak otsailaren 9ko goizean ireki ahal izan zuen, berme sanitarioekin eta erabateko normaltasunarekin.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak gaur arte garbitasunerako eta desinfekzioarako ezarri dituen neurriak, eta gero legionellosia kontrolatzeko eta hari aurrea hartzeko hartutakoak, ikastetxeko populazioaren balizko

arrisku sanitarioa kontrolatzeko zuzenak direla jotzen da. Gainera, zentroa Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren zaintzapean dago duela zenbait urtetatik hona, eta hark eskatuta behar diren neurriak ezartzen dira, hobetu beharreko guneak aurkitzen direnean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Osasun kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak galdera egin du (9-17/PES-00052) eskatuz idatziz erantzuteko Hezkuntza Bereziko "Torre Monreal" ikastetxean egindako ohiko kontrol batean legionella neumofiloaren presentzia detektatu izanari buruzko bost galderari. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

1. Zer egunetan detektatu zen legionella neumofiloaren presentzia ikastetxeko ur-sarean?

2017ko otsailaren 1ean, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko langileek ohiko ikuskapen sanitario bat egin zuten "Torre Monreal" ikastetxe publikoko legionellosia izateko arriskua zuten instalazioetan. Jarduketa hori ikastetxeetan dauden legionellosi-arriskuko instalazioak kontrolatzeko programan sartzen da. Programa hori NOPLOIk garatu izan du 2016an eta 2017an. Ikastetxeko instalazioen ikuskapenean, guztira 7 ur-lagin hartu ziren, eta analitikoki prozesatu ziren gero NOPLOren laborategian. Otsailaren 6an, laborategiak informatu zuen behin-behineko emaitzen arabera legionella neumofiloa zegoela, 2-14 serotaldeetakoa, analizatutako zazpi laginetan.

2. Noiz jakinarazi zitzaizkion ikastetxeari, profesionalei eta ikasleen familiei?

Otsailaren 6an bertan, NOPLOIk emaitza horien berri eman zion instalazioko titular den Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari. Komunikazio horretan, legionellosiaren prebentzioarako araudian ezartzen diren neurriak hartzeko eskatzen zitzaion, egoera kontrolatze aldera. Departamentuak egoera horren berri eman zien bai profesionalei bai ikasleen familiei.

3. Hau bezalako egoerei aurre egite aldera Nafarroako Gobernuak ezarririk daukan protokoloa eta inguruabarrak.

Legionellosia izateko arriskua duten instalazioetan legionella neumofiloaren presentzia detektatzen den egoeretan, NOPLOik arriskuaren berriazko ebaluazio bat egiten du, non kontuan hartzen baitira, analisisetako emaitzez gainera, arriskua duten instalazioen egoera, haien funtzionamendu- eta mantentze-baldintzak, ikuskapenetan egindako kontrolen emaitzak, potentzialki arriskua duten pertsonen ezaugarriak eta dagoen arriskuaren ezaugarriak emateko bidea ematen duten bestelako faktoreak.

Osasun ikuskatzeen ondorioz hartzen diren neurriak uztailaren 4ko 865/2003 Errege Dekretuaren 10. artikuluan, oro har, ezartzen direnak dira. Detektatutako egoeran, otsailaren 6an bertan, ikastetxeko titularrari errekerimendua egin zitzaion ur beroko instalazioetan honako neurri hauek har zitzen:

- Ur bero sanitarioko instalazioan garbiketa eta desinfekzio tratamendua egitea, aipatutako errege dekretuko III. eranskineko C atalean ezarritako prozedura aplikatuz. Ikastetxeko titularrari errekerimendua egin zitzaion NOPLOiri jakinaraz ziezaion zein egun eta zein ordutan eginen zen tratamendua, hura ikuskatu ahal izateko.

- Dutexetan bakterioak atxikitzeke iragazkiak berehala ezartzea, saihestuz haiek iragazkirik gabe erabil zitezen, garbiketa- eta desinfekzio-tratamenduaren eraginkortasuna egiaztatu arte.

- Ur beroaren tenperaturari 50 °C-tan eustea instalazio osoan, baita banaketa-sareko amaierako puntuetan ere.

- Ur beroaren desinfekzio jarraitua, sare osoko urean milioi batetik 0,5 partetik gorako hondarreko kloro libreko kontzentrazio batekin.

- Uraren purga gehigarriak egitea sareko amaierako puntuetan.

Garbiketa eta desinfekzioa egin denetik hama-bost egun baino gehiago igarota, NOPLOik instalazioetako uraren beste lagin batzuk hartu zituen, tratamenduaren eraginkortasuna egiaztatzeke. Egiaztapen-laginketaren emaitzak jasotzeko zain gaude.

4. Ikastetxe horretan lan egiten duten profesionalei eta bertako ikasleei begira egon daitezkeen arriskuak.

Legionellosia izateko arriskua duen instalazio batean legionella neumofiloa egotetik heldu den

arriskuaren ezaugarriak faktore askoren arabera-koak dira. Lehenbizi, urean presente dagoen serotipoaren arabera. 1. serotipoa bakterioak eragindako gaixotasunen % 90 baino gehiagoren erantzulea da.

Torre Monreal ikastetxearen kasuan, 2-14 serotaldean presentzia detektatu zen: birulentzia eta patogenotasun txikiagokoak dira. Honako hauek dira arriskuarekin lotutako beste faktore batzuk: bakterioak urean duen kontzentrazioa; dauden instalazioen mota, aerosolak sortzeko aukerari dago-kionez; instalazioen balizko gabeziak, eta haiek mantentzeko eta garbitzeko baldintzak. Arriskua baloratzeko garrantzitsuak diren beste faktore batzuk arriskuaren aurrean dauden pertsonen ahuldadearekin lotutakoak dira, eta hori determinatzen dute, nagusiki, haien egoera immunitarioak, adinak, tabakismoak eta lehenik dauden gaixotasun kronikoak. Legionella neumofiloa neumonia sor dezakeen bakterioa da, eta horixe da haren arriskua duten pertsonen osasunean nozi lezaketen eragin larriena.

Ikastetxearen kasuan arrisku handiena zuen egoera dutxen erabileratik heldutakoa zen. Arestian aipatu dugun bezala, lehenengo unetik haiek erabiltzea saihestu zen, eta gero, bakterioak atxikitzeke iragazkiak jarritz, pertsonen jatorri hori dela-eta izan dezaketen arriskua saihesten da.

5. Nafarroako Gobernuak arrisku horiek direla-eta hartuko dituen neurriak eta egiten duen jarraipena.

Ikastetxeko titularrari eskatu zaizkion eta ezarri dituen neurriak 3. galderaren erantzunean azaldu-takoak dira. NOPLOik 865/2003 Errege Dekretuan ezarritako prozedurak aplikatu ditu, eta eskatutakoa bete dela egiaztatu du. Arriskuko instalazioetan ur-lagin gehiago hartu dira, aplikatutako garbiketa- eta desinfekzio-tratamenduaren eraginkortasuna egiaztatzeke. Analisisien emaitzak jasotzen direnean, NOPLOik baloratuko ditu, eta, bidezkoa bada, aurreko neurriak areagotuko dira, aipatutako araudian ezartzen diren prozedurak aplikatuz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 8an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, dislexia duten ikasleei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana San Martín Aniz andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, dislexia duten ikasleei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 17ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Ana San Martín Aniz andreak 9-17/PES-00053 idatzizko galdera egin du. Hona horri buruz Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak informatu beharrekoa:

Irakurmenaren nahastea duten ikasleei buruz eskatuko datuak dituen artxiboa erantsi dugu.

Iruñean, 2017ko martxoaren 14an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Ikasturtea	Titulartasuna	Etapia	Hizkuntza ereduak						Guztira orokorra	
			A		B	D		G		
			A	A-PAI	B	D	D-PAI	G		G-PAI
2012-/2013 ikasturtea	Itundua	Haur hezkuntza						1	1	
		Lehen hezkuntza	12		1	66		104	183	
		DBH	1			18		38	57	
		Lanbide Heziketa						2	2	
		Hezkuntza berezia						1	1	
	Itunduak, guztira		13		1	84		146	244	
	Publikoa	Lehen hezkuntza	42	1	1	110		135	34	323
		DBH	5			26		29		60
		Lanbide Heziketa						2		2
	Publikoa, guztira		47	1	1	136		166	34	385
2012-2013, guztira		60	1	2	220		312	34	629	
2013-/2014 ikasturtea	Itundua	Haur hezkuntza						1	1	
		Lehen hezkuntza	34			72		138		244
		DBH	2			20		56		78
		Batxilergoa						2		2
		Lanbide Heziketa						5		5
	Hezkuntza berezia	1					1		1	
	Itunduak, guztira		36			92		203		331
	Publikoa	Lehen hezkuntza	51	5		155		162	42	415
		DBH	9			39		59	2	109
		Batxilergoa	1					2		3
Publikoa, guztira		61	5		194		229	44	533	
2013-2014, guztira		97	5		286		432	44	864	
2014-/2015 ikasturtea	Itundua	Lehen hezkuntza	31			49		167		247
		DBH	5			20		83		108
		Batxilergoa				2		5		7
		Lanbide Heziketa						8		8
		Hezkuntza berezia						1		1
	Itunduak, guztira		36			71		264		371
	Publikoa	Haur hezkuntza							1	1
		Lehen hezkuntza	40	11		169	2	169	59	450
		DBH	12			54	1	101	1	169
		Batxilergoa	2			3		2		7
Publikoa, guztira		54	11		226	3	286	61	641	
2014-2015, guztira		90	11		297	3	550	61	1.012	
2015-/2016 ikasturtea	Itundua	Haur hezkuntza	1							1
		Lehen hezkuntza	44		1	48		180		273
		DBH	5			21		94	9	129
		Batxilergoa				1		10		11
		Lanbide Heziketa						11		11
	Itunduak, guztira		50		1	70		295	9	425
	Publikoa	Haur hezkuntza							2	2
		Lehen hezkuntza	54	7		195	6	193	75	530
		DBH	14			64	8	105	2	193
		Batxilergoa	1			2		3		6
Lanbide Heziketa							35		35	
Publikoa, guztira		69	7		261	14	337	79	767	
2015-2016, guztira		119	7	1	331	14	632	88	1.192	
2016-/2017 ikasturtea	Itundua	Lehen hezkuntza	38		1	49		173		261
		DBH	4			18		103	18	143
		Batxilergoa						6		6
		Lanbide Heziketa						22		22
	Itunduak, guztira		42		1	67		304	18	432
	Pribatua	Lanbide Heziketa						1		1
	Pribatua, guztira							1		1
	Publikoa	Lehen hezkuntza	39	11		163	6	171	79	469
		DBH	20			83	10	124	5	242
		Batxilergoa				3		7		10
Lanbide Heziketa					2		59		61	
Hezkuntza berezia							1		1	
Publikoa, guztira		59	11		251	16	362	84	783	
2016-2017, guztira		101	11	1	318	16	667	102	1.216	

Galdera, untxiek Ebro ibaiaren eskuineko ibaiertzean egindako kalteak nola murriztu aztertzeko lantaldeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Carmen Segura Moreno andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, untxiek Ebro ibaiaren eskuineko ibaiertzean egindako kalteak nola murriztu aztertzeko lantaldeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 17ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeari atxikitako foru parlamentari Mari Carmen Segura Moreno andreak ondoren azaltzen den galderari idatziz erantzuteko eskatu du, eta ondortik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren erantzuna. Honako hauei buruzko informazioa eskatu da: "Nafarroako Gobernuak 2016ko maiatzaren 13an iragarri zuen lantalde bat sortuko zuela, aztertze nola murriztu untxiek Ebro ibaiaren eskuineko ibaiertzean egindako kalteak, zeinak 782.000 eurokoak izan baitziren 2015ean. Kalteturik, 1.674 lurzatiitako 2.100 hektarea suertatu ziren; batik bat, zerealenak eta baratzetakoak. Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzutea nahi dugu: Nork osatzen du lantalde hori? Zenbat bilera eta noiz egin dira? Zer ondorio



atera da bilera horietatik? Lantalde horrek proposatutako neurririk hartu al da? Baiezkoan, zehaztu zer neurri izan den hori eta zein izan den emaitza. Gobernu honen ustez, lantalde hori 2008an sortutako "untxiaren mahaia" izenekoaren ordezkotzat har daiteke, edo haren osagarri izan daiteke? (9-17/PES-00054). Hona hemen kontseilariaren erantzuna:

Egindako galdera:

Nork osatzen du lantalde hori?

Erantzuna: 2017ko otsailaren 16an, untxiari buruzko bilera bat egin zen Ribaforadako Udalak utzitako ekitaldi aretoan. Hartara deitu zituzten arloan inplikaturako eragile nagusiak; honako hauek, hain zuzen: espezie horren ugaritasun-indize altuenak eta laboreetan kalte handienak dituzten toki entitateak; nekazaritzako sindikatu-erakunde nagusien ordezkariak; ehiztarien ordezkariak, bai Nafarroako Ehiza Federazioak, bai Adecanakoak; Vasco-Aragonesa deitutako autobideko gerentzia. Foru Administrazioaren izenean, berriz, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko, Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusiko eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak bat bertaratu zen. Guztira, 25 izan ziren bertaratutakoak.

2007ko eta 2016ko untxien ugaritasunari buruzko indize kilometrikoak ageri dituzten mapak erantsi ditugu, gorriz nabarmenduta kilometroko 10 untxi baino gehiago dituzten udalak.



Egindako galdera:

Zenbat bilera eta noiz egin dira?

Erantzuna: Aurrez, 2016ko apirilaren 20an, landa-bisitaldi bat egin zen Cascanten eta Ablitaren ukitutako lursailetan, eta gero bilera bat egin zen, arloan inplikaturako eragile nagusiak deituta; honako hauek, hain zuzen: espezie horren ugaritasun-indize eta laboreetan kalte handienak dituzten toki entitateak; nekazaritzako sindikatu-erakunde nagusien ordezkariak; Foru Administrazioaren izenean, berriz, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko, Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusiko eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak bat bertaratu zen. Bisitaldiaren xedea egoera baloratzea izan zen.

Gero, banakako bilera batzuk egin dira ukitutako udalekin, ehiztarien elkarteekin eta nekazaritza-sindikatuarekin.

2017ko otsailaren 16an, untxiari buruzko bilera izan zen Ribaforadan.

Bilera horretan, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak laguntza-neurrien batera bat proposatu zuen, gaiari modu integrean ekiteko; honako hauek dira neurri horiek:

- Untxiak harrapatzeko baimenari buruzko abenduaren 31ko 567/2007 Foru Agindua berrikustea (adibidez, gaueko harrapatzeak jasotzea, baldintza batzuekin).

- Araudiaren azterketa: Ehiza aprobe-txamendua loteka adjudikatzeko aukera (Udalak zati bat / espezie bat / kudeatu dezala, eta abar, eta txartelen salmenta segurtatzea, esate baterako).

- Barrutia adjudikatzeko baldintza-agirien erdua.

- Untxiaren kudeaketari buruzko betebeharrak jasotzea.

- Txartelen salmentari buruzko betebeharrak jasotzea eta Gobernuari igorri beharreko informazioa hobetzea, halakorik gertatzen denean.

- Ehizarekin lotutako hurrengo deialdietan honako hauek jasotzea:

- Lehentasuna / laguntzaren ehunekoa, untxiarekin arazoak dauzkaten terminoetan (baldintza batzuk eskatuta).

- Termino horietan ehizazainak egon daitezela sustatzea (deialdi berria).

- Alderdi hori nekazaritza-azpiegituri buruzko deialdietan sartzeko aukera aztertzea / edo Ezenaz baliatzeko aukera (mahastien kasuan).

- Garapen Ekonomikorako Departamentuarekin lan egitea, AUDENASAK erantzukizunak bere gain har ditzan.

- Egungo tasazioak aztertzea.

- Sua tresna gisa erabiltzea posiblea da, baina aukera osagarri bat izan beharko luke, beste batzuk erabili ondorengo (plan baten pean, antolatuta eta baimena eskatuta, eta abar).

- Bertaratuei eskatzea hurrengo 15 egunetan proposamenak, ideiak edo esperientziak azal ditzaten, partzialki bada ere arazo hain konplexu hori konpontzen lagundu dutenak.

- Nekazaritza aseguruari dagokienez: Jakina den bezala, ehiza-faunaren kalteak 2011tik estali izan dituen nekazaritza-aseguruak, zeinak halako sistema bat baitu non autonomia erkidegoek ezbehar horrengatik arrisku-sarirako laguntzei gainerako sariei ematen dietenaz beste tratamendua ematen baitiete, bere irizpideak aldatu ditu, eta baldintza batzuk ezarri ditu asegurudunek faunak eragindako kalteengatik kalte-ordainak jaso ahal ditzaten. Agrosegurok ezarri ditu baldintza berri horiek, Nekazaritzako Aseguruen Estatu-entitatearen (ENESA) oniritziarekin, eta horrek tentsioa eragin du nekazaritza-sektorean eta tokiko ehiztari-elkarteetan, zeren eta egoera horrek kalte handia egiten diela jotzen baitute.

Topaketa batzuk izan dira ENESAko zuzendariarekin eta Agroseguroarekin, Nafarroako nekazaritza-aseguruaren lurralde batzordean, baina esparru horietatik transmititzen dena da ez dela emandako irizpidea aldatuko, zeren eta ezin baita benetakoa den arrisku bat aseguratu.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuan prest egon gara aseguru-sari horren % 100 ere finantzatzeko, aseguruan galerarik egon ez zedin, eta behin eta berriz gertatutako ezbeharren ondorioz sarian egiten ziren igoerak ez ziezazkien ordainarazi asegurua egiten duen nekazaritza-sektoreari. Hala eta guztiz ere, proposamenak ez du arrakastarik izan, zeren eta Estatuko Administrazio Orokorren iritziz aseguruaren sistema oreka teknikoan oinarritu behar baita.

Egindako galdera:

Zer ondorio atera da bilera horietatik?

Erantzuna: Lehenengo ondorioetako bat izan zen gaiaren konplexutasunaz eta kudeaketan inplikaturako eragileen aniztasunaz jabetzea. Hori dela

eta, erabaki zen hiru lan-mahai eratzea, zuzenago ukituta zeuden eragileekin gai zehatzak landu ahal izateko. Honako hauek izan ziren proposatutako lan-mahaiak:

1.- Legedia. Mahai horrek honako hauen moduko gaiak landuko zituen: barrutien eraketa, aprobe-txamenduak adjudikatzeko baldintza-agiriak; arauak aldatzeko proposamenak, eta izapide administratiboak arintzea, besteak beste.

2.- Azpiegitura linealak. Egiaztatu ahal izan ziren ondorioetako bat da halako elementuak (errepideak, autobideak, trenbideak eta ureztatzerako ubideak) bat datozela untxi-dentsitateak ugaritzeko, barreiatzeko eta handitzeko.

3.- Balio handiko laboreak. Baliiodunak diren baratze-produktu batzuk (esate baterako, brokolia eta fruta-arbolak) bereiz aztertu behar dira, kalteak arintzeko estrategia eraginkorrek bilatze aldera.

Gaur egun, talde bakoitzeko osagaien bilketa egiten ari gara.

Egindako galdera:

Lantalde horrek proposatutako neurririk hartu al da?

Erantzuna:

– Aparteko baimenak / gaueko baimenak ematea eta toki entitateen landazaintzako gastuetan laguntza ematea.

– Agrosegurorekin egindako bilera eta bisita egitea.

Egindako galdera:

Gobernu honen ustez, lantalde hori 2008an sortutako “untxiaren mahaia” izenekoaren ordezkotzat har daiteke, edo haren osagarri izan daiteke?

Erantzuna: Nafarroako Parlamentuaren 2008ko ekainaren 27ko 19. bilkuran, mozio bat onetsi zen,

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen lantalde bat osa zezan lehenbailehen, gehiegizko untxi kopuruaren jatorria eta egoera aztertze aldera.

Horren ondorioz, guk dakigula, 2 bilera egin ziren, eta haietara ukitutako eragileak deitu ziren; besteak beste, ukitutako toki entitateak, nekazari-tza-elkarteak eta ehiza-elkarteak. Ikusita egungo lantaldearen helburuak berdin-berdinak direla eta hartan ukitutako eragile guztiak ordezkatuta daudela, gure ustez egiazki lantalde honek aurrekoa ordeztu du, nahiz eta oraingoan sustatzailea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua izan den, eta ez Parlamentua, 2008an izan zen bezala.

Lantaldeari dagokionez, honako pdf agiri hauek erantsi ditugu:

- Acta 1 mesa conejo.pdf
- Acta Mesa Conejo 2ª Reunión.pdf
- Anexo a Carta-convocatoria reu Mesa Conejo.pdf
- 14nov08 Cartas convocatoria reu Mesa Conejo 26nov08.pdf

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 13an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

(Oharra: Aipatutako eranskinak foru parlamentarien eskura dauden Agora aplikazioan).

Galdera, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programatik irtetea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programatik irtetea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 17ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-17/PES-00055 parlamentugaldera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako ikastetxe bakarrak ere ez dio eskatu Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari atzerriko hizkuntzen ikaskuntzako programetatik ateratzeko.

Iruñean, 2017eko otsailaren 28an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programa ezartzea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Atzerriko Hizkuntzetan Ikaskuntzako Programa ezartzea eskatu duten ikastetxeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 17ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-17/PES-00056 parlamentu-galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Ondoren azaltzen diren sei ikastetxek eskatu dute atzerriko hizkuntzetako irakaskuntza programetan sartzea:

- Alloko La Cruz HLHIPa
- Oteitzako San Salvador HLHIPa
- Barañaingo Santa Luisa Marillac ikastetxea
- Burlatako Notre Dame ikastetxea
- Iruñeko La Compasión-Escolapios ikastetxea
- Tafallako Escuelas Pías ikastetxea

Programa horien ezarpenerako laguntza eta aholkularitza gaur arte izan den bera izanen da, eta irakasleen hizkuntza gaitasuna bermatuta dago, nahiz eta, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak, nola ez, jarraitzen duen irakasleen etengabeko hizkuntza-prestaketaren aldeko apustua egiten.

Iruñean, 2017ko martxoaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Carmen Segura Moreno andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 17ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mari Carmen Segura Moreno andreak ondoren azaltzen den

galderari idatziz erantzuteko eskatu du, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren erantzuna. Honako hauei buruzko informazioa eskatu du: “2016ko otsailaren 11ko Osoko Bilkuran mozio bat onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatu baitzen lan-mahai bat sor dezan, uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko.

Mozio horren bidez onetsi zen lan-mahai bat ezartzea, uholde-arriskuari buruzko plan bereki bat lehenbailehen aurkeztea, eremu urperakorretan lan egitea, aseguru azkar eta zaluetan, ukitutako lurzati baliogalera baloratzea eta erabaki adostuak hartzea ibaiak garbitzeko eta mantentzeko, eta legarrak ateratzeko erabilera tradizionalak baimentzea.

Jada urtebete igarota, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzutea nahi dugu.” (9-17-/PES-00057). Hauxe da erantzuna:

Egindako galdera:

Lan-mahaia eratu al da? Baiezkoan, zein egunetan eratu zen?

Erantzuna: Nafarroako Gobernuak Ebroko Foroa sustatu du. Partaidetza publikorako espazio bat izan nahi du eta haren aurreikuspena da epe ertainean lan egiten joatea konponbideak diseinatzeko, Ebro ibaian eragina duten eragile desberdinak koordinatuz, Ebro ibaiari lotutako arazoei buruz eztabaidatzeko eta arazo horiek lantzeko eta haien inguruan elkarrekin eta zeharkako izaeraz garatu beharreko konponbideei buruzko adostasunetara iristeko eremu bat sortze aldera, betiere oinarri eta euskarri gisa eragile ekonomiko eta sozialak integratuz. Lehenengo bilera, aurkezpenekoa, Tuteran egin zen 2016ko martxoaren 17an, eta bertan udaletako, ureztatzaileen erkidegoetako eta ingurumeneko eta nekazaritzako elkarteetako ordezkariak izan ziren, bai eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoko eta Nafarroako Gobernuko departamentuetako ordezkariak ere: Landa Garapenekoa, Ingurumenekoa, Barnekoa (Babes Zibila) eta Herri Lanetakoa.

Aurrerago, 2016ko ekainaren 9an, Ebroko Foroaren Jarraipen Batzordea eratu zen.

Egindako galdera:

Zer pertsona eta entitatek osatzen dute lan-mahaia?

Erantzuna: Ebroko Foroko parte-hartzea borondatezkoa da eta irekita dago uholdeek ukitutakoek eta uholdeetan interesa dutenek parte har dezaten, pertsona fisikoak, udalak, nahiz erakundeak izan.

Ebroko Foroaren Jarraipen Batzordea honako hauek osatzen dute: ibai horren ertzean kokatutako udalak, Foru Administrazioiko departamentuetako ordezkariak (Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia, Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia, Barne Zuzendaritza Nagusia eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusia) eta Ebroko Ur Konfederazioko ordezkariak.

Egindako galdera:

Zenbat bilera eta zein egunetan egin dira? Zeintzuk izan dira ateratako ondorioak?

Erantzuna: Aurkezpenekoa bilera Tuteran egin zen 2016ko martxoaren 17an, eta hartan iradokizunak jaso ziren bai une hartan bertan emandako

galdetegi baten bitartez, bai gero ere posta elektronikoz. Jarraipen Batzordea 2016ko ekainaren 9an bildu zen Iruñean, eta bilera hartan azterlanaren metodologia planteatu zen, bai eta aurreikusiten ziren epeak ere. Honako hau da horren laburpena:

2016

- Lurraldeko eredu digitalak eta ortofoto zaharrak berreskuratzea (1927, 1956, 1966, 1982, 1992, 2003, 2015)

- SNCZlren (Eremu Inundagarrien Katrografia Sistema Nazionala) datuak biltzea: datu hidrologikoak, zubien inbentarioa eta fitxak, eredu hidraulikoak. Iturria: EKH

- Azterlanen eta proposamenen bilketa: Fontellas-Buñuel 2009 (Nafarroako Gobernu), EeA, Ebroko Ur Konfederazioa, ureztatzaile-elkarteak, Ebroko Foroa.

- Ebro ibaiaren profilak: Ebroko 2004ko 178ko profilen errepikapena Nafarroan (Nafarroako Gobernu)

- Moten inbentarioa eta nibelatze topografikoa (2016). (MAGRAMA PIMA ADAPTA)

2017-2018

- Azterlan morfodinamiko eta geomorfologikoa: Ibilguaren azterketa historikoa. Ebro ardatzaren profil longitudinalaren jokabidea zehaztea (akrezioa edo ebakidura).

- Azterlan hidrodinamikoak (uholde arriskua) eta konponbideak:

- AP-15eko, N113ko eta NA 5202ko arazoak.

- Tuterako hirigunerako konponbideak: konporten konponbidea ebaluatzea

- Dragatuen edo/eta sastraka-kentzeen efektuari edo/eta eraginkortasunari buruzko azterlana

- Lubetak atzera ekartzeko aukera dagoen tokiei buruzko ebaluazioa

- Urpean modu kontrolatuan gera daitezkeen eremuen azterlana (Ebroko Ur Konfederazioa)

- Beste batzuk: zeharkako dikeak sendotzea eta berriz handitzea, eta jarduketa osagarriak.

Egindako galdera:

Aurkeztu al da uholde-arriskuari buruzko plan berekia? Aurkeztu baldin bada, horren kopia jaso nahi dugu.

Erantzuna: Uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeari buruzko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuak, Uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeari buruzko 2007/60/EE Zuzentarauaren (2007ko urriaren 23koa da) transposizioa egiten duenak ezartzen du uholde-arriskua kudeatzeko planak barruti hidrografikoaren mailan egiten direla, eta konfederazioek koordinatzen dituzte. Uholde-arriskuak kudeatzeko planak 20/2016 Errege Dekretuaren bidez (Kantauri Ekialdekoa) eta 18/2016 Errege Dekretuaren bidez (Ebro) onetsi zuen, eta 2016-20121 aldian egonen dira indarrean.

Foru Komunitatearen plan berekiei dagokienez, Nafarroako jada larrialdietako plan bat badauka uholde-arriskueterako, apirilaren 24ko 407/1992 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Babes Zibilaren Oinarrizko Arauaren 6. artikuluan jaso bezala. Nafarroako Foru Komunitateko Uholde Arriskurako Larrialdi Plan Berezia otsailaren 25eko 45/2002 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen hasiera batez. Gero Nafarroako Gobernuaren martxoaren 28ko Erabakiaren bitartez gaurkotu zen. Erabaki horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Uholde Arriskurako Babes Zibilari buruzko Plan Berezia onetsi zen. Gaur egun, berriz ere aztertzen ari da, haren edukiak Uholdeei buruzko Europako Zuzentarauaren kontzeptuei eta Ebroko eta Kantauri Ekialdeko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planari egokitzeko: 2016eko urtarrilean onetsi ziren kudeatzeko plan horiek. Berrikuspen hori Babes Zibilaren Zerbitzuak egina, hark ukitutako Nafarroako Gobernuak gainerako zerbitzuek ekarpenak eta iradokizunak aurkezteko epean dago.

Egindako galdera:

Lanik egin al da eremu urperakorretan, aseguru azkar eta zaluetan? Baloratu al da ukitutako lurzatiei balio-galera? Erantzuna baiezkoa baldin bada, zein izan da lan horien emaitza?

Erantzuna: Nafarroako Foru Komunitateko Nekazaritza Aseguruaren Lurralde Batzordea –horretan ordezkatuta daude nekazaritza erakundeak, Nekazaritza Aseguruaren Estatuko Entitatea (ENESA), Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoa eta aseguru-entitateak, Agroseguroren bitartez–

eguneko gai zerrenda gisa honako hau jaso zen: Agroseguro eta ENESA premiatzea aseguru bat analizatu, aztertu eta disena dezaten Nafarroako hegoaldeko ibaiertzetan uholde arriskua duten nekazaritza eremuetarako. Asegurua nekazaritza azpiegituretarako izanen litzateke, zeren eta laboreek jada arrisku hori estalita baitute.

Estatuko Administrazio Orokorrari dagozkien instantzietatik zenbait eragozpen jarri ziren gisa horretako aseguru bat zehazteko, zeren eta haien iritziak Nekazaritza Aseguruari buruzko abenduaren 28ko 87/1987 Legearen aurkakoa baita. Foru Administrazioa ez dago guztiz ados irizpide horrekin, eta aipatutako batzordean horixe jakinarazi zen, eta horregatik lan egiten ari gara nekazaritza-azpiegituretan sortzen diren kalte guztiak estaliko dituen aseguru bat diseinatzeke.

Egindako galdera:

Zer erabaki hartu dira ibaiak garbitzeari eta mantentzeari dagokienez?

Erantzuna: Garbiketa eta mantentze jarduketak egiten diren ibaietako ibilgua jabari publiko hidraulikokoak dira, eta azken hori, Urei buruzko Legearen arabera (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, Urei buruzko 29/85 Legearen testu bategina onesten duena), Estatuaren eskumena da. Eskumen hori, Nafarroan, Ebroko Ur Konfederazioaren bidez eta Kantauriko Ur Konfederazioaren bidez betetzen da. Eraginkortzat jotzen dituzten ibaietako garbiketa- eta mantentze-jarduketak konfederazio horiek egiten dituzte, haien aurrekontuetako diruak horretarako bidea ematen dien neurrian. Aldi beran, mantentzeari buruzko espedienteak eta baimenak lege indardunak aplikatuz izapidetzen dituzte aipatutako konfederazioek.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 8an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Nafarroako eremu ez euskaldunetan D eredua ezartze aldera erreferentzia-zentroetan deitutako bilerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galdearen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako eremu ez euskaldunetan D eredua ezartze aldera erreferentzia-zentroetan deitutako bilerei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 17ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Cata-

lán Higuera jaunak 9-17/PES-00058 parlamentu-galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legea betetze aldera aurrematrikulazio-prozesuan egin diren berritasunak direla eta, beharrezkotzat jo du informazio hitzaldi horiek egitea, familiek informazioa izan dezaten. Hezkuntza Departamentua izan da aurrematrikulazio-prozeduran izan diren berritasunak azaltzeaz arduratu dena, eta D eredua urte askotan eremu ez-euskalduneko sare publikoan eskaintzerik izan ez denez, Euskarabideak beharrezkotzat jo du hizkuntza-eredu horretan matrikulatuta egoteari buruzko oinarritzko alderdi batzuk azaltzea, eta horretaz arduratu da.

Honako informazio-hitzaldi hauek egin dira:

Herria	Lekua	Eguna:	Ordua
Lodosa	Angel Martinez Baigorri HLHIPa	2017/01/30	17:00etan
Castejón	Dos de Mayo HLHIPa	2017/01/30	17:00etan
Caparroso	Virgen del Soto HLHIPa	2017/01/31	17:00etan
Cintruénigo	Otero de Navascués HLHIPa	2017/01/31	17:00etan
Tafalla	Marqués de la Real Defensa HLHIPa	2017/02/01	17:00etan
Antzin	San Francisco HLHIPa	2017/02/01	17:00etan
Tutera	Elvira España HLHIPa	2017/02/02	17:00etan
Allo	La Cruz HLHIPa	2017/02/02	17:00etan
Los Arcos	Santa Maria HLHIPa	2017/02/03	17:00etan
Zangoza	Luis Gil HLHIPa	2017/02/03	17:00etan
Noain	San Miguel HLHIPa	2017/02/06	17:00etan
Larraga	San Miguel de Larraga HLHIPa	2017/02/06	17:00etan
Mendigorría	Julian Maria Espinal Olcoz HLHIPa	2017/02/07	17:00etan
Azkoien	Juan Bautista Irurzun HLHIPa	2017/02/07	17:00etan

Hitzaldi horietan, Bai Hezkuntza Departamentuko langileek, bai Euskarabidekoek zenbait aurkezpen egin dituzte, zeinetan azalpen xehea eman baita D eredua eremu ez-euskaldunetan aurrematrikula egiteko prozesuaren berritasunei buruz (Hezkuntza Departamentua) eta D ereduaren ezaugarriei buruzko (Euskarabidea), eta erantzuna eman zitzaizkien euskararekin beren seme-alabei laguntzeari buruz familiek galdetutako zalantzei buruz, euskarak ikasgelatik kanpo izan zuten presentziari buruz (patioak, ordutegiz

kanpoko jarduerak...), garraioaren eta jantokiaren baldintzei buruz, D ereduaren eta ingelesez ikas-teko programa duen D ereduaren arteko desberdintasunei buruz, bigarren hezkuntzan eta goi hezkuntzan euskaraz ikasten jarraitzeari buruz eta abar.

Iruñean, 2017ko martxoaren 14an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, ikastetxeetan transexualitateari buruzko protokoloa taxutzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ikastetxeetan transexualitateari buruzko protokoloa taxutzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 17ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeko Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-17/PES-00059 zenbakiko galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Transexualitateari buruzko Protokoloak Hezkuntza Departamentuan bertan egin da; bertako teknikariek egin dute. Hura egiteko, gaiarekin zerikusia duten zenbait kolektiborekin kontsultatu da; honakoekin, besteak beste: irakasleak, Hezkuntza Departamentuko teknikariak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuko eta Hezkuntza Departamentuko adituak, transexualitatearen arloko psikologo aditu bat eta elkarte espezializatuak –Kattalingorri eta haur transexualen gurasoen elkarte, esate baterako—. Protokoloa prestatzeko prozesuan Idazkaritza Tekniko Nagusiko zerbitzu juridikoek ere parte hartu dute.

Aintzat hartu da familiak ikastetxeari jakinarazitako desioa, igarotze horretan dagoen adingabe baten egoerari dagokionez, alde batera utzita zein den gertatzen ari den prozesu judicial, osasune-

koa edo psikologikoa. Horren aurrean, familiak ikastetxeari helarazten dizkion gomendioei ere arreta emanen zaie.

Bestetik, ez dago ebazpen judicialik transexualitate egoera bat baimentzen edo gomendatzen duenik, galderan aipatzen denaz bestera. Ebazpen horiek iritsi ahalko dira, dokumentazio- edo izendapen- aldaketei dagokienez, eta une oro errespetatuko ditu Departamentuak. Halaber, adingabeen legezko ordezkariak (edo horietakoren bat) protokoloan proposatutako neurrien aurka daudenean, Departamentua organo judicialak ebazten duenaren zain geratuko da, transexualitate-egoera detektatzen denean jar daitezkeen prestakuntza-izaerako edo babeseko hezkuntza-neurriei dagokienez izan ezik.

Protokoloko 4. puntuan jasotzen den bezala, "Familia batek ikaslearen sexu-identitatea dela-eta daukan jarrerarengatik tratu txarren aztarnak dauden kasuetan, tratu txar psikologiko, fisiko edo hitzekoen kasuetarako legez aurreikusitako bezala jokatu da, eta kasu horietan legez ezarritakoren arabera jokatu da.

Familiei eskaintzen zaien prestakuntza borondatezko baliabide bat da, Nafarroako gobernuak hezkuntza-komunitatearen esku jartzen duena, familiei eta transexualitate egoeretan dauden adingabeei laguntza emateko, egoera horiek berriak direlako sexologiaren arloko informazio berezitua behar dutenean, horixe baita ikastetxeetatik proposatzen dena.

Iruñean, 2017ko martxoaren 14an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, 2016an egindako maisu-maistren oposizioak direla-eta sortutako egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2016an egindako maisu-maistren oposizioak direla-eta sortutako egoerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 24ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldea 9-17/PES-00060 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Oposizioen egoera, zehazki Pedagogia Terapeutikoa espezialitatekoa, ez da aldatu, eta espezialitate horretan parte hartu duen izangai batek aurkeztutako berraztertze aparteko errekurtoa, ebazteko zain dago, gaur egun izapidetzen ari baita. Errekurtoa Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren abuztuaren 1eko 1934/2016 Ebazpenaren aurkakoa da, zeinaren bidez maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozedura gainditu duten izangaien zerrendak onetsi baitziren, hizkuntzaren eta espezialitatearen arabera sailkatuak.

Pedagogia Terapeutikoko (gaztelania) espezialitateko 1. epaimahaiak aipatutako aparteko errekurto horren kariatara egindako berrikuspenaren bitartez jakin dugu epaimahai horrek egindako lehenengo probako A eta B atalei dagozkien zuzenketa-aktetan ponderazio-akatsak eta akats aritmetikoak badaudela. Horrenbestez, aurkeztutako berraztertze aparteko errekurtoa izapidetzen ari da eta, horrenbestez, Hezkuntza Departamentua behar diren berrikuspen eta zuzenketa guztiak egiten ari da.

Momentuz, Pedagogia Terapeutikoko (gaztelania) espezialitateko 1. epaimahaiak egindako berrikuspenari erreparatuta, ez da detektatu maisu-maistren kidego espezialitate horretan sartzeko hautapen-prozedura gainditu zuten 50 izangaietaren bat gaindituen zerrendatik kanpo geratzea ekar dezakeen akatsik, baina egia da kasuren batean zerrenda horretako posizioa alda daitekeela.

Momentuz, Pedagogia Terapeutikoko (gaztelania) espezialitateko 1. epaimahaiak egindako berrikuspenari erreparatuta, esan daiteke detektatutako akatsak direla-eta kalifikazio-aktetan egiten diren zuzenketek oso aipagarriak ez diren aldaketa batzuk ekarriko dituztela.

Iruñean, 2017ko martxoaren 16an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, 2016an egindako maisu-maistren oposizioetan lanpostua lortu zuten izangaiekin WhatsApp-eko talde bat egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2016an egindako maisu-maistren oposizioetan lanpostua lortu zuten izangaiekin WhatsApp-eko talde bat egiteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 24ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-17/PES-00061 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak, legegintzaldi honetan, ez du inongo WhatsApp talderik eratu bere zerbitzuetako bakarra ere emateko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 16an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, familiei eta haurrei laguntzeko plan berriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, familiei eta haurrei laguntzeko plan berriari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 24ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera egin du familiei eta haurrei laguntzeko plan berriari buruz (9-17/PES-00062). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak informatzeko duena:

(1) Egin dituzuen bileretan egon diren elkarte eta entitate publiko edo pribatuaren izenak. Nola egin zaie deialdia? Parte hartzeari uko egin al dio inork?

Ondoko elkarte/entitateekin izan ditugu harremanak:

- Eskubide Sozialetako Departamentua

- Osasun Departamentua
- Hezkuntza Departamentua
- Gazteriaren Kontseilua
- Emakumeari laguntzeko zentroak
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Ilundain Haritz Berri fundazioa
- Nuevo Futuro fundazioa
- Navarra sin Fronteras elkarte
- Xilema fundazioa
- Berriztu elkarte (ingurune irekiko barnetegi-arabidea)
 - Pauma fundazioa
 - SEI elkarte
 - Kamira kooperatiba
- Iruñeko auzo guztietako haurren talde komunitarioak
 - Haurren eskubideen aldeko aliantza
 - Gizakia Helburu fundazioa
 - Nafarroa osoko oinarritzko gizarte zerbitzuak/auzo unitateak

- Harrerako familien elkarte (Magale)
- Adopzio familien elkarte (AFADENA)
- Familia ugarien elkarte
- Guraso bakarreko familien elkarte
- Panda familien elkarte
- Gurutze Gorria
- Elizbarrutiko Caritas
- ANAFE CITE
- Berriztu hezkuntza elkarte
- Gizakia Helburu fundazioa
- DIANOVA fundazioa
- Haurrak Babesteko Sistemari artatutako adingabeen senideak

• Haurrak Babesteko Sistemako esku-hartze programetan artatutako adingabeak

Deialdia banakako elkarrizketa baten bitartez egin da, eta elkarrizketa hori Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzan egin da.

Deitutako entitateetako bakarrak ere ez dio ezezikorik eman parte-hartzeari.

(2) Elkarte eta entitateekin eztabaidatu eta landu diren gaiak. Zenbat gai eta eduki zehaztu dira planaren garapenerako?:

Azkeneko sei hilabeteetan, parte hartu duten entitate eta elkarteek honako gai eta eduki hauek proposatu dituzte –eta haietan parte hartu dute–:

- Gaur egungo Haurrak Babesteko Sistema ebaluatzea.
- Jarduteko paradigma berrien prebentzioa eta sustapena.
- Familiari laguntzeko politikak.
- Egoitzako harreraren sistema.
- Familiako harrera eta adopzioa.
- Atzerriko jatorria duten erabiltzaileak.
- Gurasoekiko indarkeria.
- Berdinen arteko genero-indarkeria.
- Haurren pobrezia.
- Gurasotasun positiboko programak
- Haurren babesgabetasun modu berriak
- Familia laguntzarako eta esku-hartzerako unitate zentral moduan

- Lehen eta bigarren haurtzaroko esku-hartzea.
- Departamentuen arteko esku-hartzea, esparru sozialean, hezkuntza-esparruan eta osasunaren esparruan.

Aztertutako gai guztiak plan berrian garatzekoak diren jarduketara-ildo estrategikoen zati bat dira edo izanen dira.

(3) Elkarte eta entitateekin egindako bileren ekarpenak eta konklusioak. Zein ekarpen izan dira, eta zer konklusio atera dira ekarpen horietatik?

Sintesi moduan (haien luzera dela eta, ezin denak aipatu), hona hemen horietako batzuk:

- Haurren eta nerabeen babesa, edozein aldeetatik begiratuta, gaur egun neska-mutilen eta nerabeen eskubide bat da, bai eta gizarteak bere osotasunean duen betebeharrak ere. Hau da, “erantzukizun partekatua” printzipiotik ezarritako sistema bat da: familia, gizarte zibila eta gizarte babeserako sistemak.

- Krisi ekonomiko-sozialaren gaurko testuinguruak agerian jarri du haur pobrezia eta desberdintasuna errepikatzeke egoerek gora egin dutela, eta horrek zuzenean eragiten du gurasoek beren seme-alaben oinarriko beharrak asetzeko dauzkaten guraso-gaitasunetan.

- Familia, haurren beharren (fisiologikoak, emozionalak eta sozialak) oinarriko estalduraren bermatzaile nagusi gisa, askotan ezin du erantzukizun hori bermatu, arrazoi sozial, ekonomiko edo/eta kulturalak tarteko.

- Gaur egungo Haurrak Babesteko Sistemak berritik irakurri beharra dago, errealitate berriei egokitzeko.

- Egungo krisi ekonomikoak gizarteko geruza ahulenetan izaten ari den inpaktua (gehienak seme-alabak dituzten familiak dira) dela eta, gero eta nabarmenagoa da –oraindik ere– lotura handia dagoela gizarteko ahuldade-bazterketa egoeren eta haurren babesgabetasuneko egoeren artean.

- Gero eta beharrezkoago ikusten da sarean lan egiteko eredu adostu bat ezarri beharra dagoela.

- Familiari babesa emateko politikak garatzean oinarritutako programak eraman behar dira aurrera, bera baita lehenengo babes-eragilea. Familiaren, haurren eta nerabeen babesa lantzea modu integral eta integratua, hau da, behar guztien oinarriko estaldura bermatuz (familiakoak, pertsonalak, sanitarioa, sozialak, emozionalak...) eta izaera sektorialeko helburuak gaindituz, ia modu

esklusiboan sistemaren babes-dimentsioari lotuta daudenak, ikuspegi zabalago bat hartzeko, zeinak erreferentzia gisa izanen baititu neska-mutilen eta nerabeen eskubideak, dela zuzenean, dela haien familientzako babesaren bitartez.

(4) Familiei eta haurrei laguntzeko plan berria prestatzeko antolatu diren lan-mahaiak. Zenbat lan-mahai egin dira, eta zenbateko maiztasunez?

Errealitate sozialaren diagnosi-dokumentu bat egiteko, honako mahai sektorialak eratu dira:

- Zaintzaren kudeaketako egoeran dauden adingabeekin lan egiten duten entitateekiko lan-mahaia (babeserako egoitzak).
- Babes Sistemako adingabeekin ingurune irekian familia babesteko programen bitartez lan egiten duten entitateekiko lan-mahaia.
- Harrerako familien elkarteekiko lan-mahaia.
- Adopzio familien elkarteekiko lan-mahaia.
- Familien elkarteekiko lan-mahaia (guraso bakarreko familiak, familia ugariak...).
- Oinarrizko gizarte zerbitzuekiko/auzoko unitateekiko lan-mahaia.
- Arreta goiztiarrari buruzko lan-mahaia.
- Sareko lanari buruzko lan-mahaia.
- Arrisku psikosozialari eta gurasotasun positiboari buruzko lan-mahaia.
- Eskola-esparruari buruzko lan-mahaia.
- Haurrentzako arretan zeharka lan egiten duten beste entitate batzuekiko lan-mahaia: Cari-

tas, Anafe, Gurutze Gorria, lantalde komunitarioak...

Lan-mahai bakoitzaren bileren aldizkotasuna haren edukiaren zailtasunaren araberakoa izan da; batzuk hilerok bildu dira, beste batzuk bi hilez behin eta gainerakoak hiru hilez behin.

(5) Nortzuk dira lantaldearen partaide, eta nork koordinatzen ditu bilerak eta lan-mahaiak?

Bai diagnosi-dokumentua zuzentzeko eta koordinatzeko, bai plana bera garatzeko, zuzendaritza-batzorde bat eratuta dago, Osasun Departamentuko, Hezkuntza Departamentuko eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko ordezkariak, Iruñeko Udalak eta Nafarroako gizarte zerbitzuen barrutien ordezkari banak osatua.

Lan-mahai guztiek beren jarduketa-esparruarekin lotutako entitate guztiak biltzen dituzte. Adibidez, babeserako egoitza-programekin lotutako mahai sektoriala esparru horretan erantzukizuna duten entitate guztiek osatzen dute: Ilundain fundazioa, Nuevo Futuro fundazioa, Xilema fundazioa...

Mahai sektorialekin ezartzen diren koordinazioak Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzaren bitartez gauzatzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 16an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, familiei eta haurrei laguntzeko plan berrian parte hartzeko bideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, familiei eta haurrei laguntzeko plan berrian parte hartzeko bideei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 24ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera bat egin du (9-17/PES-00063) familiei eta haurrei laguntzeko plan berrian parte hartzeko bideei buruz. Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

(1) Parte hartzeko zein bide izan dira haur eta familiekin esku hartzearekin lotura duten oinarrizko laguntzako eta laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuen alorreko profesionalen artean?

Haurren programetan erantzukizuna duten gizarte zerbitzuetako oinarrizko laguntzako eta laguntza espezializatuko profesionalen parte-hartzea sustatzeko, parte-hartzerako honako hiru ildo hauek ezarri dira: 1) lehenengoa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetarako da, gizarte zerbitzuen barrutiko koordinatzaileen bitartez; 2) laguntza espezializatura zuzendutako parte-hartzerako bigarren ildo ingurune irekiko programetan lan egiten duten profesionalen zuzenduta dago; parte-hartzea baliabide horiek kudeatzen dituzten entitateen bitartez bideratzen da; eta 3) laguntza espezializatura zuzendutako parte-hartzerako hirugarren ildo egoitza-programetan lan egiten duten profesionalen zuzenduta dago. Ingurune irekiko ildoarekin gertatzen den bezala, parte-hartzea baliabide horiek kudeatzen dituzten entitateen bitartez gauzatzen da.

(2) Zein pertsona eta entitate daude lantaldeetan? Nola jarri dira harremanetan profesional

espezializatuak eta gogoeta-mahaiak familiekin eta eragile sozialekin?

Aurreko informazio-eskariaren erantzunean jada aipatu genuen bezala, lantaldeak ikuspegi sektorial batetik eratuta daude (familia, harrera, adopzioa, ingurune irekia, egoitzak...), eta haietan parte hartzen dute esparru horietan inplikaturik dauden profesionalak eta entitateak, beren borondatez edo beren eginkizunen profesionalen barruan.

Profesionalekiko, azterketa egiteko mahai sektorialekiko, familiekiko eta beste eragile sozial batzuekiko harremana honako bide hauetatik egin da:

1) Entitate publikoak lankidetzak-hitzarmenak ezarrita dauzkan entitate eta elkarte sektorialekin aldizka ezartzen duen beharrezko koordinazioaren bitartez.

2) Entitate publikoak, dela antolatzaile gisa, dela txostengile gisa, parte hartzen duen biltzar, jardunaldi eta prestakuntza tailerren bitartez.

3) Entitate publikoaren ekimenez eta eskura dauzkan bitarteko telematikoen bitartez.

(3) Ezarri al da partaidetza-biderik Gobernu Irekiaren Gardentasun Atarian?

Diagnosi sozialeko dokumentua, bai eta hartatik heldu den familien eta haurren babeserako plana ere, diseinatu eta abian jartzearen ardura duen entitate publikoak, aurreikusia dauka (hala behar du eta) agiri horien zirriborro eta amaierako agiri guztiak herritarren parte-hartzerako uztea, azterketak, kritikak edo/eta ekarpenak egin ahal daitezkeen. Horretarako, propio ezarritako bide guztiak erabiliko dira, bai eta Gobernu Irekiaren Gardentasun Atarian horretarako txertatu den partaidetza-bidea ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 16an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Geoalcali enpresari eskatutako Muga Meategia Proiektuaren Testu Bateginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Geoalcali enpresari eskatutako Muga Meategia Proiektuaren Testu Bateginari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 24ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunak ondoren azaltzen den galderari idatziz erantzuteko eskatu du, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna. Honako hauei buruzko informazioa eskatu da: "Parlamentu talde honek jakin duenez, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eskaera bat egin dio Mina Muga proiektuaren sustatzailea den Geoalcali enpresari, Muga

Meategia Proiektuaren Testu Bategina idatz dezan.

Dokumentu hori, hain zuzen ere, espedienteak izan dituen askotariko aldaketak egoki definitzeko eta elkarrekin lotzeko eskatu da (meatze-ahoa, garraio-zintak, ustiatze-eremuak, plantaren egoera, txosten berriak, gehigarri ekonomikoak, linea elektrikoak, errepideak, baltsak, egindako

errekerimenduei emandako erantzunak...).

Testu bategin hori egindako askotariko aldaketen bilduma denez –eta horietako batzuk funtsezko aldaketak dira–, parlamentu talde honen ustez ezinbestekoa da Mina Muga proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren espedientea jendaurrean berriz jartzea, gure lurraldeari eta bertako biztanleei eragiten dieten proiektu handien tramitazioan gardentasuna berma dadin. Akordio programatikoa jasotako printzipio garrantzitsua da, izan ere, gardentasunarena." (9-17/PES-00064). Hona hemen kontseilariaren erantzuna:

Egindako galdera:

Ezagutzen du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak espedientean sartuko diren eta testu bateginean jasoko diren aldaketen eraginaren norainokoa? Zein da aldaketa horien zerrenda edo aurkibidea?

Erantzuna:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak, 2015eko abuztuaren 27an, txosten bat egin zuen proiektuari buruz eta jendaurrean jarritako ingurumen-inpaktuaren azterlanari buruz (kopia erantsi da). Txosten horretan jasotako zenbait alderdik aldaketak ekarriko lituzkete proiektuan, haren balizko ingurumen-inpaktua arintze aldera.

Jendaurreko izapidearen ondoren, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiari sustatzaileak erakunde horretan aurkeztutako gehigarri teknikoen zerrenda bat igorri dio. Agiri horien barruan azterlan batzuk badaude, proiektuaren zenbait alderditan eta haien balizko eraginetan sakontzen dutenak; halaber, zenbait aldaketa badakarte proiektuaren jatorrizko diseinuan, eraginak ahal den guztian gutxitzeko eta hainbat instantziak igorritako errekerimenduei erantzuteko. Honako hau da Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak jaso duen ingurumen-inpaktuaren azterlanerako gehigarri teknikoen zerrenda:

Azterlan geoteknikoaren gaurkotzea.

Ebaketa geologikoak.

Sismikotasunari buruzko azterlana.

Dardarei buruzko azterlana.

Aztarna berriari buruzko oroitidazkia.

Trazadura elektriko berria.

Arkeologiari eta ondareari buruzko planoak.

Ugaztunen, saguzarren eta anfibioen presentziari buruzko azterlana.

Abifaunari buruzko azterlana.

Ur bero sanitarioaren instalazioa.

Ikusgarritasunari buruzko planoak.

Azterlan sozioekonomikoa.

Behin-behineko instalazioen planoak.

Hautsaren kontrolari buruzko fitxa.

Fauna igartzeko fabrika-obren planoak eta fitxa.

Gai kimikoen fitxa.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak, bere eskumenen barruan, aurkeztutako dokumentazio teknikoa baloratu du, 2016ko urriaren 7an emandako txostenaren bitartez (kopia erantsi da). Txosten horren barruan zehazten dira, besteak beste, aurkeztutako dokumentazio berrian aldaketak izan dituzten alderdiak, bai eta, departamentu honen iritziz, gehigarrietan behar bezala jaso ez diren alderdiak ere; esate baterako, Aragoi Ibaiaren peko linea elektrikoaren lurpeko gurutzatzea, F zaborte-giaren lekualdatzea edo izotza kentzeko gatz metak edukitzeko parkearen estaldura. Aipatu beharra dago eskatutako aldaketek ingurumen-inpaktuaren arintze bat badakartela, hasierako proiektuarekin alderatuta.

Galderan aipatzen den testu bategina Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak sustatzaileari eskatu dio, hasierako proiektuan egin diren aldaketa guztiak dokumentu bakarrean jasotze aldera, alde batera utzita zein den aldaketa horiek eskatu dituen erakundea.

Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak sustatzaileari igorritako 2016ko abenduaren 12ko errekerimenduaren testu osoaren kopia erantsi dugu, bai eta txosten horiek igortzeko azken idazkiaren, 2017ko urtarrilaren 24koaren, kopia ere.

Egindako galdera:

Egin al du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak Mina Muga proiektuaren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren Kudeaketarako Enkomienda sinatu zuten gainerako erakundeekin (Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak) Ebaluaziorako

Zuzendaritza Nagusia eta Aragoiko Gobernua) inolako kudeaketa-lanik testu bategin hori jendaurrean jar dadin?

Erantzuna:

Jendaurrean jartzeari buruzko erabakia Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioarena da. Eska liteke, baina ez litzateke loteslea izanen. Horretarako aldaketa guztiak jasoko lituzkeen dokumentua jaso beharko litzateke, eta hura baloratu.

Egindako galdera:

Konfirmatu al dezake Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak testu bategin hori jendaurrean jarriko dela?

Erantzuna:

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren espedientearen izapidetzea jarraitzeko moduari buruzko erabakiak Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak hartu behar ditu, behin eskatutako dokumentazio guztia jasota.

Madrilen izandako koordinazio-bileran, Nafarroako Gobernuak eskatuta (2016-09-22), gai hau aipatu zen, baina oraingoz ez dugu ezagutzen Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren erabakia.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 17an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, jakiteko ea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere uste duen Mina Muga proiektuari Ingurumen Baimen Integratua eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa aplikatu behar zaizkiola, eta ez soilik IEA.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere uste duen Mina Muga proiektuari Ingurumen Baimen Integratua eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa aplikatu behar zaizkiola, eta ez soilik IEA. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 24ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Foru parlamentari Dabid Anaut Peñak, idatziz erantzuteko galdera bat egin du eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariaren erantzuna. Honako hauei buruzko informazioa eskatu da: "Parlamentu-talde honek Mina Muga proiektuaren jardueralizentziari buruz egindako galdera baten erantzunean, Departamentuak erantzun zuen Mina Muga proiektua 4/2005 Legearen 3B gehigarriko A) ataleko 2. puntuan jasotako jardueren barruan sartzen dela.

Dirudienez, akats bat bago erreferentzia-puntua dela eta, zeren eta badirudi IIIC, A atala 2.c) dela aipatu behar zuena.

Puntu horrek, izan ere, honako hau dio hitzez hitz:

C) Nolanahi ere ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe soilik jarriko diren jarduerak eta proiektuak.

A) Erauzpen industria.

2. Lurpeko meatzaritza honako ezaugarriak dituzten ustiapenetan:

c) Meategiak hiriguneetatik 1 kilometro baino gutxiagora dituztenak (planoan neurturna), subsidiencia-arriskurik eragin lezaketanak.

Kasu guztietan minerala tratatzeko, meategietako edo aprobetxamendu mineralurgikoko esterilak

aldi batez pilatzeko edo hondarrak biltzeko (zabor-tegiak, presak eta urmaelak edo esterilak, birrinke-ta plantak edo planta mineralurgikoak eta abar).

Agerikoa da Mina Muga proiektua minerala lurpetik erauzteko eta potasa eta ongarrira ekoizteko gune bat dela, lurrazaleko planta batean, non mineralen eraldatze kimikoa eta manipulatu-tako produktuak egonen diren.

Horrenbestez, IIB gehigarria da aplikatzekoa.

4/2005 Foru Legearen IIB gehigarriko 4. atalak honako hau dio:

B. Ingurumen baimen integratuaren eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe dauden jarduerak.

4. Industria kimikoak.

2. Oinarrizko produktu kimiko ez-organikoak fabrikatzeko instalazio kimikoak:

d) Amonio kloruroa, klorato potasikoa, karbonato potasikoa (potasa), karbonato sodikoa (sosa), perboratoak, nitrato argentikoa.

3. Ongarriak fosforoaz, nitrogenoaz, potasioaz fabrikatzeko instalazio kimikoak (ongarri sinpleak edo konposatuak).

Horrenbestez, badirudi ingurumen baimen integratuaren eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe –ez soilik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe– dagoen proiektu bat dela. (9-17/PES-00065). Hona hemen kontseilariaren erantzuna:

Egindako galdera:

Ados al dago Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua ondorio horrekin?

Erantzuna:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak uste du Mina Muga proiektua abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuko 3B gehigarriaren barruan sartzen dela. Foru dekretu horren bidez Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zen. 3B gehigarri horrek jasotzen ditu nolanahi ere ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe soilik jarriko diren jarduerak eta proiektuak.

Jotzen dugu proiektuaren helburua dela lurpeko meatze bat eta meatzeari etekina ateratzeko instalazio bat definitzea, horren guztiaren helburua denean minerala tratatzea hura merkaturatu baino lehen; horrenbestez, aipatutako 3B gehigarriko A) ataleko 2. puntuari atxiki behar zaio. Puntu horren amaierako lerrokadan honako hau aipatzen da:

“Kasu guztietan minerala tratatzeko, meategietako edo aprobetxamendu mineralurgikoko esterilak aldi batez piltzeko edo hondarrak biltzeko (zabortegiak, presak eta urmaelak edo esterilak, birrintze-plantak edo planta mineralurgikoak eta abar):”

Izapidetze hori Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak berresten du, eta oinarriko arau bat da hori, Espainiako estatu osoan aplikatzekoa. 1. eranskina (Ingurumen-ebaluazio arrunta behar duten proiektuak). 2. multzoa. Erauzpen industria. Lurpeko meatzaritza hartzen du, eta amaieran dio ingurumen-ebaluazioan

honako hauek sartzen direla: “minerala erauzteko, tratatzeko, biltegitratzeko, aprobetxatzeko eta garraiatzeko behar diren instalazio eta egiturak; hondar antzuen metatzeak; idoiak; eta linea elektrikoak, ur-horniduran eta uraren arazketa eta sarbide berrietarako bideak”

Horrenbestez, jarduera horretarako aurreikusita dagoen ingurumeneko esku-hartze bakarra dela ingurumen-inpaktuaren kasuko ebaluazioa. Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa egiten ari da ebaluazio hori, eta horren amaieran ingurumen-inpaktuaren adierazpena eman beharko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 17an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Espazioko Klimarako Espainiako Babes Zibileko Elkarteak eta EMPk (AEPCCE) egindako proposamena dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Espazioko Klimarako Espainiako Babes Zibileko Elkarteak eta EMPk (AEPCCE) egindako proposamena dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 24ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du (9-17/PES-00066). Honako hau da Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Espazioko Klimarako Espainiako Babes Zibileko

Elkarteak eta EMPk (AEPCCE) egindako proposamenari buruz? (1. agirian erantsi da). Proposamenaren helburu nagusia da “Erresilientziarako eta autobabeserako neurriak Nafarroan orokorki sustatzeko PNLa, HILF motako (High-Impact Low-Frequency event) larrialdi handietarakoa”

Erantzuna:

Barne zuzendari nagusiaren 2017ko martxoaren 8ko ofizioa bidaltzen dizut, non Babes Zibileko zuzendariaren idazkia eta segurtasun gaitako goi teknikariaren txostena baitatoz erantsita. Horren bidez, erantzuna ematen diot idatzizko galderari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 14an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M^a José Beaumont Aristu

TXOSTENA:

Gaia zentratzeko, espazioko klimaren arriskuari buruzko eta hark izan ditzakeen ondorioei buruzko lehen hurbilketa bat eginen dugu:

Eguzkiak fisikoki eta magnetikoki elkarreraginean jarduten du Eguzki Sistemako objektu guztiekin, naturalak nahiz artifizialak izan, maximoen eta minimoen ziklo bat betetzen duen jardura-maila batekin: 11 urtean behin errepikatzen dira gutxi gorabehera. Ziklo horrek espazioko meteorologiatzat jotzen duguna sortzen du, zeina ingelesezko "space weather" terminoari baitagokio.

Jardura maximoa dagoen garaietan, Lurrean bertan eta gizakiak garatutako gailu elektriko eta elektronikoetan eragin fisiko eta magnetikoek inpaktu aipagarria izan dezakete, baita kalteak eragin ere. Gertatzeko eta eragin soziala izateko probabilitateari erreparatuta, halako gertakizunak zientifikoki honela sailkatzen dira: maiztasun txikia / inpaktu handia (High-Impact Low-Frequency event); hau da:

- Errepikatze-denbora oso luzea dute, zeinak ez baitu gizartea behartzen larrialdi-plan gaurkotuak edukitzera.

- Aukera handiak daude inpaktu sozial handiak izateko, elkarren mendekotasun gero eta handiagoa duten sistema teknologikoetan eragin ditzaketen kalteengatik.

Espazioko meteorologiak kaltetu litzakeen sistemen artean, honako hauek daude: GPS bidezko lokalizazioa, telekomunikazioa, satellite bidezko operazioak, espazioko segimendua, irrati bidezko nabigazioa, sare elektrikoak eta erregaia garraiatzeko sareak.

Arrisku horren ezaugarria, oro har, zuzenean kaltegabetzat jo daitezke pertsona gehienentzat, baina gailu elektriko eta elektronikoetan izan dezakeen eragina aipagarria izan daiteke. Inpaktu horrek eragin litzake hasi ustekabeko txikiekin eta buka zerbitzu jakin batzuen horniduran etenak gertatzearekin, funtsean komunikazioei eta energia elektrikoari dagokienez.

Kontuan hartu behar da horietako asko funtsezkoak diren oinarriko azpiegiturak direla eta elkarrekin lotuta daudela; horrelakoetan hutsen bat izateak hondamendi-ondorioak ere ekar diezaike herritarrei (berokuntza ezin jartzea, joan-etorriak ezin egitea, hornidurarik eza, ura edangarri egiteko plantek huts egitea eta abar luze bat).

Gaur egun, espazioko meteorologiatik heldutako arriskuak direla-eta azterketa zabalak egiten ari dira munduko zenbait herrialdetan. Horretarako

iraganean gertatutakoak aztertzen dira, bai eta halakoak intentsitate gutxi-asko handiarekin errepikatuko balira, gero eta zabalduago dauden eta gero eta elkarren mendekoagoak diren sistema teknologikoetan izanen litzaketen eraginak ere. Horren adibidea Estatu Batuak dira, non espazioko meteorologiatik heldutako arriskuak legegintzaren mailan ere islatu baitira "Grid Reliability and Infrastructure Defense Act" delakoaren bitartez. Akta horretan, agerian jartzen dira Ipar Amerikako garraio elektrikoaren sareak pultsu elektromagnetikoen edo ekaitz geomagnetikoen aurrean dauzkan ahuldadeak.

Espanian, hainbat erakunde aspalditik ari dira aztertzen eta analizatzen fenomeno bera, hura errepikatzeko modua eta gehien ukitu ahal dituen planetako eremuak, eta zenbait neurri garatzen ari dira fenomeno horrek ekar ditzakeen ondorioak arintzeko eta haiei erantzuteko. Horri dagokionez, Babes Zibilaren Eskola Nazionalean jada lau jardunaldi tekniko egin dira.

Fenomenoak gure erkidegoan dauzkan ezauzgarriak direla eta, Nafarroa erdiko latitudean baitago (arriskua handiagoa da instalazioen latitudearen arabera) eta bertako banaketa-sareak behar beste saretuak eta isolatuta baitaude, arriskua planetako beste toki batzuetan baino txikiagoa izan daiteke.

Foru erkidegoak arrisku horri aurre egiteari dagokionez, honako hauek aipatu behar dira:

Arriskuari maila orokorrean begiratu behar zaio, eta badirudi egokiena dela lankidetzan aritzea erakunde nazionalekin (Babes Zibilerako Zuzendaritza Nagusia, gure esparruan) eta, haien bitartez, nazioarteko erakundeekin eta erakunde zientifikoekin.

Beti izanen da baliagarriagoa prebentzioa, neurri aringarriak baino. Hori dela eta, lehentasuna litzateke protokoloak ezartzea (erakunde zientifiko-en eskutik), horien bidez zerbitzuak ekoizten dituzten instalazioetan babes-neurri prebentiboak gartzeko eta zerbitzuaren gabealdi-denborak ahal den guztian gutxitzeko, bai eta, kasua bada, etendako zerbitzuak birjartzeko ere. Energiaren produkzioa eta banaketa, komunikazioak, satelliteak, oliobideen bidezko banaketa, trenbidea eta abar: horiexek dira Azpiegitura Kritikoak Babesteko Batzorde Nazionalaren eta Azpiegitura Kritikoak Babesteko Departamentuen arteko Lantaldearen lan-ildoak. Nafarroako Gobernua bi erakunde horietan ordezkatuta dago Foruzaingoaren bitartez.

Bestalde, alerta-sistemak eta bestelako aurreikuspen jarduerak leudeke. Alterazio elektromagnetikoak eta antzekoak behatu eta detektatzeko

sareak sortzea. Sare horiek Foru Komunitatearen esparruaren gainetik daude, eta maila orokorreko ekintza horien barruan egonen lirateke.

Azkenik, antolamendu-neurriak, biztanleriari informazioa ematekoak eta, oro har, gure erresilientzia handitzea leudeke. Neurri horiek, hobetzeko modukoak badira ere, noski, jada jasota daude Nafarroako babes zibilerako lurralde-planean, eta ohikoak dira arrisku modu osorako.

Babes Zibilerako Zuzendaritza Nagusia estatu-erakunde bat sortzeko aukera aztertzen ari da, planteatzen diren erronkei erantzuna emateko behar besteko finantzaketa duena. Erakunde horrek fenomeno horien nazio mailako zaintzaren eta alertaren arloko eskumenak izanen lituzke, eta gainera aztertuko luke zenbaterainokoa den kalteak jasan ditzaketen sektoreen kalteberatasuna, erresilientzia handitzeko ekintzak proposatuak lituzke, eta gai honetan lan egiten duten nazioarteko erakundearen sarean integratuta egonen litzateke.

Nafarroako Gobernuak Babes Zibilerako Zerbitzua etengabeko harremanak dauzka Babes Zibilerako Zuzendaritza Nagusiarekin, eta bakoitzaren eskumenen esparruan gai honi eta beste batzuei buruzko informazioa izaten dute denbora errealean. Aipatutako estatu-erakundeak sortzekotan, lankidetzak-hitzarmen bat sinatzea proposatuko genuke.

HILF motako larrialdi handiei aurre egiteko Nafarroaren autobabeserako eta erresilientziarako neurrien sustapen orokorrari buruzko lege besteko proposamena egiteari dagokionez, uste dugu oraingoz eta gaur egungo egoeran ez dela beharrezkoa. Egokiagoa dirudi hasitako ildoetan lan egiten jarraitzeak.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Patxi Fernández Elizalde, segurtasun gaietako goi teknikaria

Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak betetzeari eta Mina Muga proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak betetzeari eta Mina Muga proiektuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 24ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunakondoren azaltzen den galderari idatziz erantzuteko eskatu du, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren erantzuna. "Departamentu horren Ebaluaziorako Atalak, 2016ko urriaren 7ko

datarekin, MAGRAMAK Mina Muga proiektuaren ingurumen-inpaltuaren ebaluazioari buruz egindako kontsulta bati erantzun zion "Informe ambiental" izeneko dokumentu batekin. Dokumentu horren bukaerako atalean 84/1990 Foru Dekretua aipatzen da, eta aipatzen du proiektuak dekretu hartan ezartzen dena bete behar duela. Ez du egiten, ordea, inolako aipamenik 35/2002 Foru Legeak egiten dituen aurreikuspenei buruz, hain zuzen ere beren eraginak kokatuta dauden udalerrien eremua gainditzen duten proiektuei buruzkoak.

35/2002 Foru Legeak, Lurraldearen Antolamenduari

eta Hirigintzari buruzkoak, honela dio:

3. atala. Lurraldearen antolamenduko planak

37. artikulua. Indarraldia, berrikuspena, aldaketa eta gaurkotzea.

1. Lurralde antolamenduko planek mugarik gabeko indarraldia izanen dute.

2. Lurralde antolamenduko planaren berrikuspenera esaten zaio lurraldearen egitura orokor eta organikoaren gaineko irizpide berriak onartzeari. Lehengoarekiko funtsean desberdina den lurralde-eredua aukeratu delako, edo ezusteko inguruabarrrek lurraldearen antolamenduan aldaketa erabakigarria eragin dutelako.

3. Lurralde antolamenduko planen gaurkotzetzat jotzen da informazioa eta lurralde-analisia osatzen duten edukiak sartzea, edo haien zehaztapenak egoki interpretatzen, zehazten eta ezartzen laguntzen dutenak.

4. Gainerako kasuetan, lurraldearen antolamenduko planen zehaztapenak aldatzen badira, planaren aldaketatzat joko da.

4. atala. Lurralde ekintzako plan zuzentzaileak

38. artikulua. Kontzeptua eta esparrua.

1. Lurralde ekintzako plan zuzendariak helburu dute Lurraldearen Antolamenduko Plan batetik eratorritako lurralde-ekintza sektorialak zehaztu, koordinatu eta programatzea.

Ekintza sektorial horiek honako hauek garatzeari dagozkio: etxebizitzetarako edo jarduera ekonomikorako eremu handiak, udalez gaindiko ekipamendu eta zerbitzuak, garraio eta komunikazio sistema eta gainerako lurralde-azpiegiturak, hala nola hornidura eta saneamendua, hondakinen tratamendu eta deuseztatzea, hidraulikoak, telekomunikazioetarakoak, energiarekin zerikusia dutenak edo antzeko beste edozein.

2. Lurralde ekintzako plan zuzentzaileek lurzoru erreserbak ezarri ahalko dituzte, zehazten dituzten asmoetara bideraturikoak, lurzoru horiek beren garapena zaildu edo eragotz dezaketen ekintzetatik babesteko xedez eta, halaber, lurzoru horiek beren urbanizazio edo eraikuntza baino lehenago eskuratzeko xedez. Determinazio horiek lotesleak izanen dira ukituak gertatzen diren toki entitateen planeamenduarentzat. Kasua bada, ukituriko hirigintza planeamendua aldatu eta zehaztapen horietara egokitu dadila premiatu ahalko du Nafarroako Gobernuak.

3. Lurralde ekintzako plan zuzentzaileak garatu ahalko dira udalez gaindiko planen edo obra proiektuen bitartez, euren zehaztapenen arabera, ezertan galarazi gabe haiek egin ahal izatea obren gauzatze materialak edo xede dituzten lursailen ezaugarriek behartzen dituzten egokitzapenak.

4. Lurralde ekintzako plan zuzentzaileen esparrua izanen da haiek garatzen duten lurralde antolamenduko planarena.

5. atala. Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialak

42. artikulua. 13. xedea.

1. Udalez gaindiko plan sektorialek honakoak dituzte xede: jarduketak –etxebizitzaren alorrekoak nahiz ekonomikoak–, edo plan eta politika publikoen garapena, baldin eta jarduketa edo garapen horien eraginak eta ondorioek, dituzten tamaina, garrantzi edo ezaugarri bereziengatik, gainditu egiten badituzte oinarri dituzten udalerrria edo udalerrriak.

Bistan da Mina Muga proiektuak eta Geoalcaliren proiektuaren gainerakoak udal batean baino lurralde zabalagoan duela eragina, eta haren lurralde-, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eransanak eragina duela Xabierko, Zangozako eta Undues de Lerdako udalena –zuzenean ukitutako herriak baitira– baino askoz zabalagoa den lurralde batean.

Hori guztia demostratuta gelditu da Mina Muga proiektua bera irakurrita, zeinean esaten baita eragin soziologiko eta ekonomikoa “positibo” izanen dela Zangozako eta Pirinioetako eskualde osorako. Enpresak berak, Xabierkoaz eta Zangozakoaz gainera, beste udal batzuegana jo du, proiektuak lanpostuei eta abarrei dagokienez daukan “ontasuna” azaltzeko.

Bistan da ezen proiektuak aurrera eginen balu, 500 eta 3.500 lanpostu bitarte sortzeak, zuzenekoak nahiz zeharkakoak izan, Geoalcalik dioen bezala, eskualdean lurralde-eragina eta eragin soziologiko handia izanen lukeela eta inguruko herrietan etxebizitzetarako, zuzkiduretarako, industria osagarrietarako eta abarretarako lurzorua aurreikustea eskatuko lukeela.

Badirudi, horrenbestez, guztiz aplikatzekoak zaizkiola Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko lurralde antolamenduko planei (LAP4), lurralde ekintzako planei eta udalez gaindiko plan sektorialeiei buruzko atalak, eta Mina Mugaren proiektuaren izapidetzea ezin dela zuzenean egin, meatzaritzari eta jarduerari buruzko legedia aplikatze hutsez, lurzoru urbanizaezineko industria-jardueratzat jota, Nafarroan industria-jarduerak ezartzeari buruzko 84/1990 Foru Dekretuari jarraituz. Bide batez, esan beharra dago foru dekretu hori udalez gaindiko plan sektorialak sortu zituen lurralde antolamenduari buruzko legedia baino lehenagokoa dela. (9-17/PES-00067). Hona hemen kontseilariaren erantzuna:

Egindako galdera:

Bat dator Departamentua parlamentu-talde honen iritziarekin, alegia, edozein jarduera edo

hirigintza-baimen eman baino lehen goian aipatu-tako lurraldearen antolamenduari buruzko arauetako bat edo batzuk ezarri behar direla?

Erantzuna:

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateko lurralde antolamendurako tresnak arautzen ditu, bai eta lurzoru urbanizaezinen erabilerak ere. Bestetik, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeak tresna horiei edo baimen horri dagozkion ingurumen-ebaluazioa egiteko edo ingurumen-baimena emateko prozedurak arautzen ditu.

Departamentu honek ezin du araupetze hori alde batera utzi izapidetzen dituen eskabide nahiz espedienteetan.

Egindako galdera:

Eman al die departamentuak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezartzen dituen agindu horien berri ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren tramitazioaren ardura duten gainerako erakundeei, zuzenean edo

zeharka ukitutako udalei eta enpresa sustatzaileari?

Erantzuna:

Departamentu hau parte hartzen ari da Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Ingurumen Ebaluaziorako Zuzendariordetza Orokorra egiten ari den ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren izapidetzean. Horretarako, zenbait txosten egin dira, zeinetan jardueran eragina duten edo hura baldintzatzen duten lurralde- eta hirigintza-baldintzak landu baitira, kasua bada aplikatzekoa den araudia aipatuz eta hirigintza-baldintzak txostenean jasoz. Gaur arte, ez da hirigintza-izapidetzeari buruzko inolako berariazko komunikaziorik egin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 17an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplanteei buruzko programaren koordinaziorako eta kalitaterako egiturak erregulatzen dituen irailaren 15eko 69/2016 Foru Aginduari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplanteei buruzko programaren koordinaziorako eta kalitaterako egiturak erregulatzen dituen irailaren 15eko 69/2016 Foru Aginduari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 24ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00068), informazioa nahi baitu "Nafarroako Foru Komunitateko organoen eta ehunen emate eta transplanteei buruzko programaren koordinaziorako eta kalitaterako egiturak erregulatzen dituen irailaren 15eko 69/2016 Foru Aginduari buruz". Hauxe da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Jada hartu diren neurri efektibo eta administrazioak

Honako hauek dira foru agindu horretan xedatutakoa betetzeko gaur arte egin direnak:

- Transplanteen Batzorde Teknikoaren eraketa.
 - 2017ko otsailaren 1ean Transplanteen Batzorde Teknikoa eratu zen. Batzordeko kide guztiak bertaratu ziren. Eratzea Nafarroako Ospitalegunean izan zen, autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzailea buru zela.
- ForoSalud ekitaldiko edizio bat egin da emate eta transplanteei buruz.
 - Emateen eta transplanteen arloko hobekuntza-ekintzak garatzeko alde zuzeneko urrats gisa, ForoSalud ekitaldiaren bertaratu-saio bat egin zen 2016ko azaroaren 22an, “Emate eta Transplanteak” izenburupean. Saioaren ardatza izan zen ematei buruzko gaur egungo beharrezkoak identifikatzea eta emandako produktuen erabilera aztertzea, bai eta plangintza, arreta eta profesionalen, elkarten eta erakundearen arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea ere.
 - Jardunaldiak, zeinean guztira 27 profesional eta elkartegintza-ehunduraren ordezkariak parte hartu baitute, aukera eman du guztira 83 hobekuntza-proposamen jasotzeko; honako esteka honetan aurki daitezke: o
<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/D96E5769-2C33-4F0C-82EA33D880965561/304608/InformeAportacionesForoSaludSeguridadPaciente.pdf>
 - Biztanleriari informazioa emateari eta hura motibatzearen esparruei buruzko proposamenak eta emaileak lortzeko buruzkoak elkarrekin oso lotuta daude, eta ekarpen guztien artean 25 (% 30) eta 14 (% 17) dira hurrenez hurren. Ondotik datoz kudeaketari eta antolamenduari buruzkoak, zeinak 22 (% 25) baitira, eta koordinazioari buruz aurkeztu diren 17 proposamenak (% 21). “Bestelakoak” atalean, beste 6 ekarpen daude (proposamen guztien % 7).
- Emateen Aholku Batzordea
 - Datorren martxoaren 20rako jada programatuta eta deituta dago Emateen Aholku Batzordearen eratze-bilkura, hainbat elkarrekin parte-hartzearekin. Besteak beste, Batzordeak ForoSalud ekitaldian sartutako hobekuntza-proposamenak aztertu eta lehenetsiko ditu.
- Gaur arte, Nafarroan aplikatu izan den kalitate-programa Transplanteen Erakunde Nazionalak ezarritako kalitaterako eta segurtasunerako esparru-programa da. Programa horrek 1996tik aukera eman du guztira 445 garuneko heriotza erregistratzeko –aldi horretan gertatutako heriotza guztien % 8,89 dira– eta horrek bideratu du 407 emaile errealek lortzea.
 - 1996tik Nafarroako Ospitaleguneko (orduan Nafarroako Ospitalea zen) Transplanteen Ospitale Koordinazioak barne auditoriaren prozesua jasotzen du bere jardueran:
 - Transplanteen Erakunde Nazionalaren Kalitate eta Segurtasun Programak bi aldiz egin ditu kanpo auditoriak
 - Gaur egun, Kontuen Ganbera ari da kanpo auditoria bat egiten
 - Sistema zuzen beteta dago eta aukera eman du guztira 22 kalitate-adierazle lortzeko, nahiz eta bilakaeraren analisirik eta Nafarroaren eta beste autonomia erkidego batzuen arteko alderaketaren analisirik ez jaso. Azken aste hauetan ekin diogu egiteko horri.
 - Transplanteen Erakunde Nazionalaren kalitate-sistemak ez du gaixoen jarraipenik jasotzen; horrenbestez, ez du aukerarik ematen ez bizirau-pena ebaluatzeko, ez eta horri buruzko zentron edo autonomia erkidegoen arteko alderaketak egiteko ere. Hala eta guztiz ere, CUNek, transplanteak egiten dituzten beste zentro askok bezala, ospitale-erregistro berekiak eta berariazkoak badauzkate, beren kalitatea ziurtatzen dutenak. Hona hemen datuak, zentro horrek emandako informazioaren araberrakoa:
 - CUNen egindako 500 gibel-transplanteen biziraupena % 93koa da lehenengo urtean, % 81ekoa 5 urteren buruan eta % 66koa, berriz, 10 urteren buruan.
 - Kliniketan egin diren giltzurruneko 1.000 transplantetik gora kontuan hartuta, mentaketaren biziraupena % 95etik gorakoa da; mentaketaren biziraupenaren batez bestekoa 18,5 urtekoa da.
 - Bihotzeko transplantea izan dutenen bizirau-penaren orokorra %95ekoa da 3 urteren buruan.
 - Emate-transplante prozesuan sartutako jarduerak egiteko baimendutako zentro eta zerbitzuen erregistroa etengabe gaurkotzea.
 - Autonomia erkidegoaren mailako erregistroa Osasun Departamentuan dago, eta Nafarroan bai organoen, bai ehunen transplanteak egiten dituzten zentro guztiak biltzen ditu.
 - 2016an zehar, ehunen ziurtatze-rola gaurkotu da, eta egiteko gelditu dira Nafarroako Ospitaleguneko organoei eta ehunei dagozkienak, zeinak Ospitaleen Koordinazioaren bitartez izapidetzen ari baitira: gaur egun Nafarroako Ospitaleguneko Gerentziak ontzat ematea baizik ez da falta. <https://reports.ont.es/Autorizaciones.aspx>

– Estatu mailan, gaur arte, Transplanteen Erakunde Nazionalaren webgunean argitaratuta daude soilik ehunen eta haien bankuen ziurtatzeak: (<http://www.ont.es/infesp/Paginas/Tejidos,PHyCelulas.aspx>),

– Oraingoz Transplanteen Erakunde Nazionalak ez ditu argitaratzen organoen estatu mailako ziurtatzeak.

- Gaur arte, Transplanteetarako Itxarotzerrenden Erregistroari dagokionez, honako hau egiaztatu ahal izan dugu:

– Estatuan ez dago protokolo bakarra gaixoak Transplanteetarako Itxarote-zerrendan sartzeko irizpideak direla eta. Nafarroan, gaixoak zerrendan sartzeko irizpide batzuk aplikatzen dira, klinikoen artean adostuak baina ez formalizatuak.

– Gibekeko, birikako eta bihotzeko transplanteen itxarote-zerrendak zerrenda bateratuak dira, Transplanteen Erakunde Nazionalak kudeatuak eta haren CORE izenekoan sartuta daudenak.

– Giltzurruneko transplanterako itxaronzerrendei dagokionez, soilik gaixo hiperimmunizatuak daude COREn sartuta.

– Giltzurruneko transplanterako itxaronzerrendetan dauden gainerako gaixoak “tokiko” mailan kudeatzen dira. Gaixo bat giltzurruneko transplanterako itxarote-zerrendan sartzetik denan, O-NOZeko Nefrologia Zerbitzuek gaixo hori transplantea egiten duen zentrori (CUN) deribatzen dute. Behin gaixoak zerrendan sartuta daudela egiaztatzen denean, CUNek kudeatzen duen erregistroan sartzetik dira eta O-NOZeko Nefrologia Zerbitzuek ere VERSIA gaurkotzen dute beren informazioa. VERSIA giltzurruneko gaixotasunaren kudeaketa integralerako programa da.

- Egiaztatu da Emate eta Transplanteen Erregistroa etengabe gaurkotuta dagoela, eta egoki kudeatzen dela, Transplanteen Erakunde Nazionalaren jabetzakoa den estatu-mailako aplikazio bakar batekin (CORE). Emate guztiak eta transplantea egin zaien gaixo guztiak jasotzen ditu. Itxarote-zerrendan dauden gaixo guztiak biltzen ditu. Giltzurruneko transplantearen kasuan, soilik gaixo hiperimmunizatuak (PATHI) sartzetik dira itxarote-zerrendetan, bai eta transplantea egin zaien gaixo guztiak ere.

- Organoak esleitzeko lehenespen-irizpideei dagokionez, honako hau egiaztatu da:

- Gibekeko, birikako eta bihotzeko transplanteen kasuan, organoen esleitzea eta banaketa urte-

ro transplanteen unitate guztiak itundutako irizpideen arabera egiten da, organoen arabera bilduta, Transplanteen Erakunde Nazionalak deitzen duen bilkura batean. Nafarroan hartzaile egokirik ez badago, gainerako erkidegoei eskaintzen zaie. 2016rako banaketa-irizpideak Transplanteen Erakunde Nazionalaren webgunean ageri dira, honako esteka hauetan:

- Gibelaren kasuan, funtsean, “0” alerta, ABO koidentitatea, MELD (“Model for End-stage Liver Disease”)

- Bihotzaren kasuan, (“0” alerta bateragarria), ABO koidentitatea eta estatu-ponderala, egoera kliniko funtzionala NYHA (New York Heart Association) eta bihotzeko eta zirkulazioko laguntza mekanikoaren mendekotasuna

<http://www.ont.es/infesp/CriterioDeDistribucion/Criterios%20distribución%20Hígado%202016.pdf>

<http://www.ont.es/infesp/CriterioDeDistribucion/Criterios%20distribución%20Páncreas%202016.pdf>

<http://www.ont.es/infesp/CriterioDeDistribucion/Criterios%20distribución%20Corazón%202016.pdf>

- Giltzurruneko transplantearen kasuan, esleitzeko irizpideak tokiko mailan kudeatzen dira; hori dela eta, oro har, organoak beti Nafarroako gaixoei esleitzen zaizkie, salbu eta oso gutxitan gertatzen den hiperimmunizatuen kasuan edo hartzaile bateragarririk ez dagoen kasuetan.

- Giltzurrunaren hartzailea esleitzeko Nafarroan aplikatzen diren irizpideek programa informatizatu batean jasota daude. CUNek kudeatzen du programa eta autonomia erkidegoko transplanteen koordinatzaileak ikuskatzen du. Bateragarritasun-baldintzez gainera, programa horrek honako lehenetsun irizpide hauek biltzen ditu: 0 alerta, antzekotasun etarioa, MELD puntuazioa, egoera kliniko eta itxarote-zerrendan emandako denbora.

- Hezur-muinaren Emaileen Erregistroa (REDMO deitutakoa) etengabe gaurkotzen da eta estatu-esparruko aplikazio bakarrarekin kudeatzen da. Josep Carreras fundazioarekin lankidetzan kudeatzen da. Nafarroan izena emandako emaileen tasa ia hurrengo autonomia erkidegokoena ia bi halako da.

- Organoen Emate-transplantearen Biozaintzaren Erregistroa Zelula eta Ehunen Biozaintzaren Erregistroan sartu da.

Zer neurri hartuko dira hemendik gutxira? Kronograma xehakatu

Ondoren datorren taulan hurrengo urterako aurreikusitako helburuak eta kronograma jaso ditugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Helburua	Data
Nafarroako Emateen eta Transplanteen 2016ko oroitidazkia.	2017ko apirila
Nafarroaren eta beste autonomia erkidego batzuen bilakaerari eta haien arteko alderaketari buruzko txostena, "Transplanteen Erakunde Nazionalak ezarritako kaliterako eta segurtasunerako esparru-programan" sartutako kalitate adierazleen gainekoa.	2017ko maiatza
Transplanterako Itxarote-zerrendan Sartzeko Protokoloen onespren formala.	2017ko iraila
Giltzurruneko Transplantearen Itxarote-zerrendaren Erregistroa arautu da eta Giltzurruneko Transplantetako gaixoei Organoak Esleitzeko Protokoloaren onespren formala.	2017ko azaroa
Organoen Ematea eta Transplantea Hobetzeko Plana egin da.	2017ko abendua
Giza organoen erabilera klinikoaren eta transplanteen jarraipenaren eta emaitzen adierazleen panel berria definitu eta abian jarri da.	2018ko otsaila
Kosten ebaluazio-sistema garatu da.	2018ko martxoa

Galdera, Nafarroako eremu ez euskaldunean D ereduan matrikulatzeko eskabideak direla-eta Hezkuntza Departamentuan jaso diren ikastetxeen komunikazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako eremu ez euskaldunean D ereduan matrikulatzeko eskabideak direla-eta Hezkuntza Departamentuan jaso diren ikastetxeen komunikazioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak informazio-eskaera bat egin du (9-17/PES-00069). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Ikastetxeen eremu ez-euskalduneko D ereduko matrikulazio-eskaerei buruzko inolako komunikaziorik ez dago idatziz jasota, aurrematrikulako izapideetan aurreikusitakoak izan ezik.

Iruñean, 2017ko martxoaren 20an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen inolako komunikaziorik jaso duen eremu ez euskalduneko familiek D ereduan matrikulatzeari dagokionez aurkeztutako bi eskabideak direla-eta.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen inolako komunikaziorik jaso duen eremu ez euskalduneko familiek D ereduan matrikulatzeari dagokionez aurkeztutako bi eskabideak direla-eta. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak informazio-eskaera bat egin du (9-17/PES-00070). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Ikastetxeen idatzizko inolako komunikaziorik ez da jaso beren seme-alabak D ereduan matrikulatu nahi zituzten Nafarroako eremu ez euskalduneko familiek aurkeztutako bi eskabideak direla-eta.

Iruñean, 2017ko martxoaren 20an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, eremu ez euskaldunean aurkeztutako bi eskabideak direla-eta Hezkuntza Departamentuak eginen duen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eremu ez euskaldunean aurkeztutako bi eskabideak direla-eta Hezkuntza Departamentuak eginen duen kudeaketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko martxoaren 3ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00071). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Beren seme-alabak D ereduan matrikulatu nahi dituzten Nafarroako eremu ez-euskalduneko familiek aurkeztutako bi eskabideen kudeaketa

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpenean ezarritakoaren arabera egin zen; haren bitartez, onesten dira hurbiltasun linealaren irizpidea, balorazioa, aplikatu beharreko gehieneko distantzia eta zein udalerritan aplikatu behar den ezartzen dituen eta Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozeduraren jarraibideak, egutegia eta eskabide ereduak, 2017-2018 ikasturterako. I. eranskineko "D ereduan matrikulatzea eremu ez-euskalduneko ikastetxe publikoetan" atala baliatu da, hain zuzen.

Aurrematrikulako eskabideak aurkezteko epea, aurreikusitakoaren arabera, otsailaren 13etik 17ra bitartekoa izan zen. Jakin dugunaren arabera Nafarroako Kontseiluak bere irizpena otsailaren 10ean eman zuen arren, Departamentu honek haren existentziari eta edukiari buruz izan zuen lehenengo berria otsailaren 13an izan zen, Departamentuko pertsona baten barneko mezu elektronikoko baten bidez. Kanpaina hasita zegoen ordurako. Geroago, egun berean, irizpenaren berri izan

genuen berriz ere Mahaiaren eta Eledunen Bartzarrak hura ezagutu ondoren.

Ez Hezkuntza Departamentuak, ez eta Nafarroako Gobernuaren beste ezein departamentuk ere ez du inolako komunikazio ofizialik jaso, ez Parlamentutik, ez Nafarroako Kontseilutik Parlamentuak Nafarroako Kontseiluari eskatu zion irizpenari buruz.

Une hartan, prentsaurrekoan, iragarri zen berme juridiko osoz jokatu zela eta baieztatu zen aurrematrikularen lehenengo jardunaldia normaltasun osoz garatzen ari zela. Aipatu zen aurreikusita zegoela inprimaki bikoitzak ez zuela inolako eraginik izan behar A eta G ereduak etorkizuneko ikasleen eskaeretan. Eta hala izan zen.

Hartara, bada, otsailaren 13ra arte komunikaziorik egon ezenez, Hezkuntza Departamentuak ezin izan zuen aintzat hartu araudiaren hurrenkera hierarkikoari buruzko irizpena aurrematrikula-aldia hasi baino lehen.

Aurreikusitakoaren arabera, aurrera eraman den prozedurak ez du inolako eraginik izan aurrematrikula-prozesuaren garapen normalean eta ikasle-postuen behin-behineko esleipenean, eta aukera eman du bai beren seme-alabak D ereduaren eskolatu nahi zituztenek, bai beste aukeraren baten alde egindakoek, eskaerak egiteko, eta, halaber, behar beste eskaera egonez gero ezartzekoa zen ereduaren baten alde egiten zutenen eskubidea eta lehendik zegoen baten alde egiten zutenen eskubidea koordinatu dira. Horixe izan zen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpenarekin lortu nahi izan zena eta lortu dena.

Horri dagokionez, hurrengo ikasturteko matrikulaziorako araudia ezartzeari begira, oso kontuan hartuko dugu errespetatzea, irizpenaren edukiarekin bat, hierarkia normatiboaren printzipioa, eta ahaleginak egiten ditugu erregelamendu-arauak garatzen dituzten ebazpenek ez dezaten gairiditu goragoko arau batek baimentzen dien edukia. Orain, a posteriori, eskabide bikoitzak prozeduran izan duen eragin deuseza ezagututa, araudia

egokitzeko aldaketa bat egiteak, atzera-eraginez, ez luke aldatuko aurrematrikularen emaitzaz, zeren eta inprimaki bikoitzak ez baitu eraginik izan gaztelaniazko hizkuntza-ereduen alde egin duten familien eskabideetan.

Aitzitik, inongo gatazkarik ez dago aurreinskripzioaren aldia baino lehen ezarritako erreferentziako ikastetxeekin. Etorkizuneko azterlanek zehaztu beharko dute familien eskaera dela-eta proposatutako zerrendan aldaketak egitea gomendagarria den ala ez. Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago 8 ikastetxe direla jada eremu ez-euskaldunean D ereduaren eskaintzen dietenak hura eskatzen duten ikasleei eta familiei.

Zortzi ikasle baino gutxiagorekin sortu diren landa-eskola berriei dagokionez, kasuko eskola-erkidegoen eskaeren arabera erabaki dira. Datu gisa, jakin ezazu Nafarroan 67 ikasgela badaudela egoera horixe bera dutenak. Horrela, parlamentu-ebazpenari erantzuten diogu; izan ere, premiatu egin gintuen landa-eskola sustatu eta mantentzen.

Halaber, nabarmendu beharra daukagu aipatutako araudiak zortzi ikasleko kopurua aipatzen duela arau nagusi gisa; hau da, inguruabar orokorretan, zeinak ez baitira Alloko eta Antzingo landa-eskolen errealitateak hurbilen daudenak. Izan ere, ikastetxe horiek ez dira gutxienekoetara iristen, ez D ereduaren, ez A/G ereduaren. Horrenbestez, "oro har" ohiko ikastetxeei begira pentsatutako zenbaterako horiek aplikatzeak ez luke aukerarik emanen landa-eremuako eskola txikiak garatzeko. Adibide gisa, esan dezagun Antzingo ikastetxe publikoak 2015/16 ikasturtean guztira 21 ikasle izan zituela. Oso ohikoa da gurea bezalako erkidego batean, landa-errealitateari ematen zaion erantzuna ez egotea nahitaez lotuta herri ertain edo handietarako pentsatutako gutxieneko kopuruei; hori dela eta, arauaren asmo barne-hartzailea islaturik ageri da testuan bertan, "oro har" hitzak aipatzen baitira.

Iruñean, 2017ko martxoaren 16an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña